


ANTERO APAOLAZA

PATXIKO TXERREN



AUSPOA LIBURUTEGIA

JB-882

9132

J. Billie

Gianit

Dec. 1962

PATXIKO TXERREN

AUSPOA LIBURUTEGIA

- 8 -

Colección Auspoa - Plaza de Santa María, 2 - Tolosa

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 180 peseta. Atzerrian: 275 peseta.

Ongilleak: 350 » Ale bakarra: 25 »

ANTERO APAOLAZA

PATXIKO TXERREN

AUSPOA LIBURUTEGIA

DEPÓSITO LEGAL S. S. 48—1962
N.º DE REGISTRO S.S. 6991—1961

ARKIBIDEA

| | |
|----------------------------------|-----|
| Antero Apaolaza Aranguren | 9 |
| Itz-aurrea | 15 |
| PATXIKO TXERREN | |
| I... .. | 21 |
| II | 31 |
| III | 43 |
| IV | 51 |
| V | 63 |
| VI | 69 |
| VII | 75 |
| VIII... .. | 93 |
| IX | 107 |
| X | 117 |

ANTERO APAOLAZA ARANGUREN

Iparraguirre Urretxuarra gitarra zartxo bat lagun zuelarik European zear kantari ebillela, 1845-eko Ilbeltzaren 3-an jayo zan Antero Daniel de Apaolaza aren errian. Aita, Antonio Maria de Apaolaza y Araiztegi, Urretxua bertakoa, ta ama, Maria Isabel Andresa de Aranguren y Laskurain, Antzuola-koa zituan. Orrela agertzen da Urretxuan Sasieta bikarioak izenpetutako batayo-agirietan.

Aurtzaroko berririk ez degu. Baña Anterok, botikariotzarako ikasketa nagusiak Madrid-en bete zituan. Ta España-ko uri nagusi orretako Unibersidadeko "Claustro de la Facultad de Farmacia"-k eman zion tituloa 1869-ko Irallaren 2-an, 3-garren folioko 90-garren zenbakian errejistratuaz danez.

Urrengo urteko Azaroaren lenengotik Bergaran jarri zan bere botikarekin.

Iru urte barru, 28 urte zituala, 1873-ko Lotazillaren 15-an ezkondu zan Bergarako Oxirondo-ko Santa Marina parrokian, Felipa Azkarate y Lizeta, 24 urte zituan Bergarako alabarekin. Ezkontza orren frutu izan zituan bi seme, Franzisko (1) ta Roman, eta iru alaba, Isabel, Franziska eta Luisa. Azkeneko biak Oñatiko Santa Ana komentuan moja sartu ziran.

Bere ideak oso liberalak omen ziran, ta, orduango liberalik geienen antzera, aurrerapenak biziki maitatzen zituan. Bere botikak liberalen biltoki fama omen zuan; an biltzen bai ziran erriko liberal intelektualak, ta ori ez zan fama ona orduango Bergaran. Aundikiak oraindik indar asko bai zuten. Ta aundiki oiek, konserbadore bikain bezela, beti agertu izan dira lenari loturik; ta besteak ordea aldakuntza eske, beti aurrerago begira.

Aurrera begira zegoenatarikoa genduan gurre Apaolaza ere.

Anterok amaika urte zeramazkiala Bergara-

(1) Seme au Oñati-ko mediku izan zan urte askoan eta, aitak zaletuta edo, euskaltzalea genuan. Ikusi Aita Onaindia-ren "Milla Euskal Olerki eder", Larrea-Amorebieta, 1954, 394-garren orrialdea.

ko botikario, erriko agintaritzarako autatu zuten. Bergarako udaletxeko Gallastegi jaunak Francisco Apaolaza (Anteroren billoba (1)) jaunari aditzen eman zionez, agirietatik arkitzen omen da, 1881-eko Uztaillaren 2-an, alkate izendatu zutela. Baña agiri oiek Oregi adiskideak udaletxeko konserjearekin zeatz miakatu dituta une artako aktak palta omen dira; ba, egiñalak egin, etzuten utsune ori bete al izan. Fexta orren aurretikoak eta ondorengoak bakarrik arkitzen dira, ta ondorengo batek, 1881-garren Irallaren 29-an egindako batzarraren agirian, Modesto Tellaetxea alkate zalarik, aúdio:

“A consecuencia de haberse hecho presente por el Gobierno Civil de la Provincia la necesidad de que el Ayuntamiento resuelva si existe o no incompatibilidad en la renuncia del cargo de Concejal que hizo D. Antero Apaolaza, quien trasladó su residencia a la villa de Anzuola, se acordó consignar que no existe razón alguna para considerar que haya incompatibilidad en la aceptación por el Ayuntamiento en la renuncia del cargo de Concejal que

(1) Azterketa auetarako laguntzalle prestu, jaun auek izan ditut: Jose Antonio Loidi, Josu Oregi ta Francisco Apaolaza (egillearen billoba). Eskerrik asko.

había hecho a causa de haber trasladado su residencia a la villa de Anzuola y que así se expresara al Sr. Gobernador”.

Au da ziurki dakiguna. Gañerakoa ezin genezake egitzat eman utsune ortako agiriak biltzen ez diran artean.

Gertaera au, ain juxtu ere, Iparragirre bere errikidea il zan urtean bertan izan zan.

Ez dakigu arritzekoa dan garai aretan liberal bat izatea erriko agintaritzan, baña arritzen ez gaituana da idea oietako gizonak agintaritzan asko ez irautea. Aoz jaso degunari jaramon egingo bagenio, au da gutxi gora-bera orduan gertatua: Bere iritziz zuzen ez ziran zenbait gauza salatu omen zituan, medikuren baten egintza biurriak eta abar, baña aundikien indarrak etzitian nunbait ongi neurtu, ta, naigabez iguindurik, bertan-bera utzi zuan konzejaltza ta Antzuolara pasatu zan botika ta guzti, an bizitzera. Bere amaren erri artan azaltzen baita botikario, urte artako Iralletik aurreruntz.

Bolara aretan, Apaolaza Bergaran bizi zan urteetan esan nai degu, azpijana ebillen karlista ta liberalen artean; ikusi Jose Arteche-ren “*Cuatro relatos*” (Edit. Gómez, Pamplona, 1959) liburuan “Confidencias en Lastaola” atala, 103-garren orrialdean. Naste aretan parterik izan ote zuan Apaolazak? Ezta errez jakitea. Baña

zenbait gauza illun nabaitzen dira inguru are-
tako gauzetan. Ta illuntasunen lagungarri agi-
rien utsunak azaltzen dira.

Antzuolan bakardade aundian bizi izan zan
Antero. Bere ideak orduango Bergaran ez ba-
ziran ontzat artzen, Antzuola etzan izan erri
obeagoa.

Berak jenio zital xamarra omen zuan eta
bere emaztea ere ez omen zetorren zearo bat.

Aurrerantzean etzuan Anterok bere burua-
rentzat, eta batez ere bere gogoarentzat, pake-
rik arkitu. Ingurukoak etzituzten bere ideak
ongi ulertzen. Baña, bere bakardadea eztitze
alde edo, zartzarora, literaturari ekin zion txo-
larte libreetan. Orduan idatzi zituan PATXI-
KO TXERREN ta beste lanen batzuek. Tama-
lez, bere eriotza ondoren, beste idazlanak bere
senideak erre zituzten. Azko bertsoz idatziak
omen ziran, baña ez dakigu zertaz idatziak
ziran ere.

Beste lan batzuek izanik, zergaitik ez ote
zituan ezagutzera eman? Azkue-k ortara bul-
tzatu bai zuan. *Morfología Vasca*-n, 809-ga-
rren orrialdean, au dio: "Tuve el gusto de es-
cribir al autor felicitándole por su obra e inci-
tándole a que escribiese otras por el estilo. Inú-
til fue mi empeño". Beraz, Azkuek arrera ona
egin zion PATXI-KO TXERREN-i.

1899-garrengo Lotazillaren 28-an sortu zan Gipuzkoa-ko "Colegio Oficial de Farmacéuticos"-en sortzalleetariko bat genduan Antero.

Ingurukoak, eta batez ere senideak ulertzeke, bere ideeri lotuta, tristerik, 1908-garren urteko Lotazillaren 21-ean il zan Antzuolan bertan, 63 urte zitularik, *arterio-esclerosis pulmonar* gaitzarekin. Ta Bergaran lurra eman zioten bere emaztearen familiko illobian.

Juan San Martin

ITZ-AURREA

Antero Apaolaza-ren lanetatik PATXIKO TXERREN bakarrik da gaur ezagutzen deguna. Ta bera, Trueba-ren El Judas de la casa da, euskeratua.

Trueba Galdames-tarraren "novela rosa" deitzen diranetatik berau degu onena ta "rosa" antz gutxien duana. Aukeratze orretantxe adierazten digu Antero-k bere gogoa etzala erromantikoa, ta gero azalduko degunez, askozaz ere gutxiago bere eskuetatik atera zanean.

Itzulpen onek iru argitalpen izan zituan. Euskal literaturan orain arte geienez argitaratu diranak ere iru edo lau aldiz argitaratuak izan dira, dotriña liburutxoak edo izan ezik. Beraz, PATXIKO TXERREN geien irakurri diranetakoa degu.

Baña, Antero-n itzulpenak badu zerbait geiago ere: gertaerak tokiz aldatu zituan, ta Enkartaziñoen ordez Antzuola ingurua du agerleku. Ta, orrez gañera, gertaerak laburtuak dira bere erara, prosa arinduz baña gaia laburtu gabe.

Trueba-ren idazlanak bere denboran asko irakurtzen ziran, ta geroago ere ez gutxi; idazle on guziak bezela mendez-mende indarra galduaz badijoa ere. Oraindik gaur ere askok irakurtzen duen egillea baita. Trueba, bere garaiko kezkak ongi ikustatu ta adierazi zituan egillea zan. Bere idazteko erak, sentipenak ikutuz, irakurle asko irabazi zituan. Ta, izan ere, nobela batek irakurlearen biotza betetzen ez badu, irakurlea eta idazlearen artean zerbait ez dijoa ongi.

Sasoi bakoitzak bere adiñeko gauzak eskatzen ditu. Trueban literatura, denboraz gugandik ain urbil izanik, oso urruti arkitzen da gaurko literaturaren tajuratik. Trueba errroman-tikoa genduan ta gaur epelegia ta aspergarria iduritzen zaigu idaz-tankera ori. Gaur, batez ere gazteak, askozaz ere naiago du idazkera eraginkorra, gauzak zuzenki azalduaz. Beste bizimodu batera loturik bizi gera, beste era batera pentsatzen da. Ukatu eziñezko eboluziñoak garamaz.

Euskaldun izakera "itzetan lander eta egiñetan eder" egiazkoa bada, ez gera erromantikutarako jayoak, ta gaitz zaigu ere ori irentsitzea. Baña, arritzekoa bada ere, gaurko idazle askok daramate erromantiku kutsua; auxe da auxe, besteak utzitakoa guk artu. Erromantiku txarren era, gañera.

Apaolaza, ordea, aurreratutako Barojatarra genduan. Eta Barojak bezela, ukatu ezindako euskotar gogoia zeraman bere barrenean txerturik. Trueban prosa, beretzat, astunegia izaki. Ta landertu zuan ainbat ondoen. Trueba-rena aspergarri xamarra bazan ere Antero-k eralgiz kendu zion zaia. Itzultzalle batek orretarako eskubiderik ez badu ere, El Judas de la Casa-k, Apaolaza-gandik atera zanean asko irabazi zualakotzat gaude. Jatorrizkoa bera baño ohea da irakurtzeko. Uste degu Apaolaza-k bazekiela zer egiten zuan. Lasto kentze orrek ez dio nobelarik kalterik egin, mesede baizik.

Apaolazak erabiltzen dituan toki-izenak egiazkoak dira, asko neuk ezagutzen ditudanak eta besteak ere berdin dira. Ezagutzen ez nituan izen zerrenda bat eraman nuen Antzuolara ta ango zaar batzuri galdetu nioken ia toki ezagunak ziran ta baietz esan zidaten.

PATXIKO TXERREN-ek orain arte izan dituan argitalpenak auek dira:

“Vergaran: Juan Lopez-en moldizteguiyan, 1890-garren urtean.”

“Irun-en, J. Diaz-en moldizteguiyan, 1915-garren urtean.”

1917-garren urtean “Euskal-Esnalea” aldizkarian argitaratu zan, ta bertatik arturik aparteko ediziño bat egin liburu bezela, Ugaz-ama (La madrastra) Larrea-tar N.-renakin batera, “Donosti’n, Martín, Mena y C.^a-ren echean.”

Oiek ditugu nobelaren bikaintasunaren pruebarik onenak.

El Judas de la Casa-k beste itzulpen bat ere badu euskerara, Arrutza-k bizkaieraz egiña (1), baña Apaolaza-k laburpenez bizi geiago eman bazion, Arrutza-k Trueba-k berak baño prosa astunagoa darabil. Ez du bestearen gozotasunik; adibidez amaierako ataltxoak artu besterik ez dago:

Truebak: ¡El pájaro había cantado!

Apaolazak: ¡Txoriak kantatu egin zuan!

Arrutzak: ¡...txoriak, egi osoa agertu eban bere txorrotxio artean!

Orrelako diferentziak dituzte lenengotik azkeneraño. Arrutzak nunbait etzuan ezagutu

(1) 1934-garren urtean Bilbo-ko Verdes Atxirika-ren irarguan argitaratu zan Etxe-kalte izenarekin.

Apaolazaren itzulpena, bestela ikasbide ona zuan.

Orrez gañera, Arrutzarenak, asi goitik eta bera, itzulpen kutsua darama, ta Apaolazarenari berriz etzaio igartzen itzulpena danik ere. Ezta erreza ori arkitzen euskerara aldatutakoe-tan. Gutxi ere gutxi ezagutzen ditugu orrelako itzultzalle jatorrak, ta beren artetik bikañena beste botikario bat da: Loidi jauna. Ikusi berak euskeratutako Juan Antonio de Zunzunegui-ren Itxaso...!, "Egan" aldizkariko 3-4 zenbakietan 1957-an argitaratua.

Apaolazak euskera bizkorra ta samurra du. Batez ere errikoia. Orrez gañera, literaturarako sortzetikako jatortasuna nabari du. Izkuntza berezi baten jabe da.

Ta, liburu onekin, AUSPOA-ren irakurleak zorioneko daudela esan genezake.

Juan San Martín

I

Orain izango dira Jaungoikoak daki zenbait urte, Anzuela eta Deskarga barren bitartean, bidez ezkerre, zan auzera bat, ikusi leikean ederrena.

Pago, aritz, gaztaña, sagar eta keixa artean, or da emen banakatuak agiri ziraden patxara ederreko eta Aitzgorri gañeko elurra baño zuriago ziraden etxeak.

An barrenean erreka txiki bat, zeñen (1) urak ziran udaberriko intzan tantoa baño garbiagoak eta izotza bera baño otza-

(1) ...txiki bat; bere urak... ..eta antxintxika...
(Laugarren argitalpen au antolatzeko, lenengo argitalpenari segitu diogu itzez itz noski. Beste biak ikutu ta aldatu egin zuten Apaolazaren lana. Aldaketa oyek jarri egin ditugu emen: letra batez deya dagoanean, Irungoa da, 1915 urtekoa; ta numero batez dagoanean, 1917 urtean Euskal-Esnalea-k ager-arazi zuna da).

goak, antxintxika zijoan, bere anaya, Arrandari menditikan datorren errekatxoari laztan ematera, agur, gur, gur, gur esanaz, erreka baztarretako sagatz, altz eta arantzei.

Errekatxo onen eskubiko aldetik eta intxaur aundi batzuen itzalean, beste lau edo bost etxe inguruan zituala, zegoan eleiza txiki bat, non (1) erregututzen zioten Aita San Blasi, len aitortu dedan auzokoak.

Auzera onetakoa zan Etxe-alai zeritzon etxea, non (2) gertatu zan ni esatera noan kondaira.

Izena zuan bezela, Etxe-alai zan era guztitako (3) (a) eta zituen soro batzuek, bai etxe buruan eta bai etxe azpian, lur beltz eta asta-putza ondo eldu baño samurragoak eta aundiki baten baratza bezin ongi apainduak.

Itz batean, eziñ eskatu zezakean Etxe-alai zedukan baño egoera oberikan. Atari aurreko keixa, intxaur eta lizarren arte tik nekez bide egiñik, mun egiten zion

(1) ...eleiza txiki bat; bertan erregutzen...

(2) ...zeritzon etxea; an gertatu...

(3) ...gustiakoa...

(a) Irun, J. Diaz, 1915 ...gutzizkoa...

eguzkiak egun sentian eta etzion alderatzen Azandegietan barrena ezkutatu artean.

Bagilla zegoan bere azkenetan eta zan illunabar bat.

Etxe-alaiko jentea ari zan keixa batzuek biltzen etxe aurreko keixa arbole-tan.

—Kontu erori, Inazio, zergatik (1) ge-yago balio dek ik mundu onetako keisa guztiak baiño —deitzen zion amona batek birigarro bat bezela adarrik adar keixa gañean zebillen amasei urteko mutil gazte bati.

—Ez bildurrik izan, ama, zergatik (2) badakit nun eta nola nabillen —erantzun zion gazteak.

—Aukerakua intzake, seme, erririk erri txerpolari bizimodua ateratzeko.

Au esanaz ustuzituan altzuan zituan keixak keixondoan zegoan otxarren bate-ra.

—Bai... jatxi adi onezkero; otxarren onek gañezka egin dik eta aitak eta Patxikok ere bete ditek euren.

(1) ...Inazio, geiago... ...guztiak baiño ta.

(2) ...izan ama; badakit nun...

Inazio brinko batean jetxi zan keixatik.

Beste mutill gazte bat lau edo bost urte Inazio baño zarragua, jeisten zan orduan aldameneko beste keixa arbola batetik; zeñen (1) ondoan zegoan aitona buru zuri bat.

Bien artean artu zuten alde banatitikan keixaz beterik zeukaten otxarrena eta abiatu ziran ama eta Inazio zeuden alde-
ra.

Elkartu ziranean eseri ziran atsedeten lurrean.

Aitonak atera zuan praketako boltsikotik bere tosa, atera zuan andi pipa kerten mptz bat, eta atzazkalean astinduez, nola ortzik ez zuan (2), jarri zuan zintzili-
lika ezpañean.

Beste ainbeste egin zuan seme zarrenak.

—Paxiko, eman egiak pipada bat, emen etziok eta— esan zion aitonak biatzakiñ atzamartuaz, baña alferrik, tosa-
ren ondoa.

—Aita, neroni ere aitu zait— erantzun zion semeak bere pipa bete zuanean.

(1) ...batetik; onen ondoan...

(2) ...ortzik ez zuan-ta...

—Gezurtia —esan zion Inaziok iziotu-rik—. ¿Atzo bertan ez nikan ekarri nero-
nek laurden bat Bergaratik?

—¡I beti izango aiz berritsu aundi bat!

—¡Eta i zitala paregabekoa!

—Ondo egiten diat. Erre nai duenak
erosi dezala belarra.

—¿Ez aiz lotsatzen esatiakin bakarrik?

—Utziyok, utziyok, Inazio, —esan
zuan aitik arnasa luze bat egiñaz eta pi-
pa sartuaz bere tosan— utziyok. Bazeki-
yagu zer itxon dezakegun guztiyak ire
anayagandik.

—Juane —esan zuan amak—. Orixe
da etxe onetako Judas. Orretxek kendu
bear digu danori biziya. Orretxek...

—Ixildu zaite, Fraiska, —erantzun
zion Juanek—. Pipa artzalle zalea banaiz
ere, etxeko bakian zaliago naiz.

—Aita, bakerik ez badezu ere, pipa
bete belar izango dezu —dio Inaziok— ni
bizi naizen artean; eta esanaz batera brin-
ko bian sartu zan etxean.

Jesusgarren batean biurtu zan atzera
arturik eskuan orri puska bat soka gisa
biurtua.

—Tori, aita, —esan zion— naiz nero-
nek ez erre, ezagutzen det zenbat ayena-

tzen zeran orririk ez dezunean pipa betetzeko, eta argatik, atzo nere anayaren aginduaz juan nintzanean belarra ekartzera, erosi nuen laurdentxo bat zuri ez aldiak betetzeko.

—Bai —esan zuan Patxikok— nere laurdenetik artuko uan ori.

—Begiraik, Patxi; etzeidak odolik berotu. Uste duk danak gerala ire antzekuak?

—Bai —esan zuan Fraiskak Patxiri begiratuaz—. Añ zitalak dituk ire ametsak nola diran ire egiñak.

—Bai... Bai... (1) utzi, utzi zayozue gauza orri —esan zuan Juane gizajoak masallak estuturik tira egiñaz pipari.

Zori oneko pakea iritxi zan Etxe-alaira... Illun arratsa zan, eta egunaz bero izugarria egiñ bazuan ere, txit egon giro ona zegoan.

—Aurki apaldu eta lotara juan bear degu —esan zuan Juanek—. Bigar goizian goiz, eguzkiak berotzen asi baño lenago, juan bearko dezute Bergarara keixekin, eta ala oraiñ, goazen etxera. Mikaelak onezkero gertatuko zuan afariya.

(1) Ba... ba...

—Begira Juane... Ez litzake obe bertan afaltzea? —esan zion emazteak.

—Ongi pentsatua da... —erantzun zuten danak— etxe barruan labean baño beroago egongo da orain.

—¡Mikaela!... —deadar egin zuan Fraiskak etxe aldera begiratuaz.

—¿Zer nai du, ama? —erantzun zion neskakta batek sukaldeko leyo-tikan.

—Afariya gertu danean ekarri zan oneraxe.

—Or naiz bereala, ama...

Eta esan bezela, or non datorren gure Mikaela, galbai bat zapi zuri batekin estaliya buruan arturik, eta gaztaña koloreko pitxar aundi bat sagardoz beteta eskuan duela.

Mikaela zan emezortzitik ogei urterako neskakta bat, San Juan eguneko goiz bat bezin argiya eta larrosa bat bezin ederra.

Itzuli zuan auspez galbaia; apaindu zuan zapi zuriarekin; eta jarri zuan gañean ontzi zabal bat bete sardiña, liña lorea baño urdiñagoak, eta ingurutua urre zarra baño oriagoko arto atalekin.

...Aitaren, Semearen, eta Spiritu Santuaren... Errezatu zutenean Paternoste-

rra, bedeinkatu zuan mai ura Juanek..., eta betor sardiña, kolpe artuari eta lantzatan pitxarrari, asi ziran jaten pake onean.

—Keixak... baduaz arintzen —esan zuan Juanek— eta sentitzen det Don Jose-gatikan.

—D. Jose... —dio Patxik—. Geyago sentituko dute txoriak.

—Aurten ez da onezkero geyago etorriko, meza esan baño len, goizian goiz, zozuak eta eskillasuak iltzera gure sukaldeko leyotik. ¡Deabruan piztiyak; ez dira izutzen txorimalua jarriagatikan.

—Eta Don Jose aitatu degun ezkerro... gaur ¿nola ez ote da etorri? —esan zuen Fraiskak.

—Atzo jua bazan Donostiara... bere illoba indianoari bidera ateratzea —esan zion Juanek.

—¿Orla badator illoba? ¡Ai zenbat pozten naizen! ¿Ekarri ote digu zure anayan berririk, Juane...?

—Jaungoikoak nai izan dedilla. (1) (a)

—Arritzeko gauza da gero, ainbeste denboran ez jakitea ez il dan, ez bizi dan.

(1) (a) ...izan dezala.

Bildur naiz ilko zala, bestela onezkero letra punten bat egingo zuan.

—Neronek ere alaxe uste det, Juane.

—Bost ajola digu guri ori ala izanda ere— esan zuan Patxikok.

—Ave Maria purisima! —dio Fraiskak.

— ¡Ai zer biotz gogorraren jabe aizen, seme!

—¿Zer ardura digu guri ura deabruak eramán dezala, sekula ardit bat eman ez badigu?

—Nik nai dedana eta danok deseo bear deguna da, bizi dedilla —esan zuan Juanek—, naiz Ipiñ-arrita bete urren jabe izan eta ez deigula erretxin batentzat ere eman.

—Baña... ¿Amerikatik dator Don Josen illoba? —galdetu zuen Mikaelak.

—Ez zekiñat nik ori —erantzun zion amak—, bañan nola ta nai ere urrutitik beñepenean (a), eta, esaten dutenez, oso aberats.

— ¡ ¡Ixo... !! —esan zuan Inaziok, lepoa luzatuta—. ¿Ez ote dira erak an Deskargan barrena datozenak?

(a) beñepean.

II

Arrazoya zuan Inaziok; gaztañaria ziar zijoan galtzadan, azaldu ziran apaiz jaunna eta bere illoba Anjel, mando banan gañean, ondoren zituztela beste iru mando indianoaren maletaz zamatuak.

D. Jose zan San Blaseko apaiz jauna. Zituan irurogeiren bat urte, osasun kolorea eta geyegi ez arren zer arin mardua; bere itzetan eta bere arpegian ezagun zan biotzaren edertasuna; beti itxiya gorrotoarentzat, poltsa zabalik zeukan bezela auzoen ez bearretarako; itz batean zan, esan oi dan bezela, ogi puska baño ohea, eta auzera guztiak maitatzen zuan aita bezela.

Indianoa zan ogei ta bost urteko galai gazte bat.

Etxe-alaiako guraso eta umeak jaiki ziran ayei ongi etorri ona ematera: bakarrik Patxi gelditu zan otxarren ondoan, sardiñak egon ziran ontzia arta puska batekin inguru guztian igozten (a); eta esanaz bere artean: ¿zer zeukat nik zer ikusi indianoarekin eta ez bere osabarekin...? Oyek emango dutenagatikan...

Ez al zituan D. Josek Etxealaitarrak ikusi, gelditu zuan mandoa. Beste ainbeste egin zuan indianoak.

— ¡Kaixo Juane! ¡Ola Franziska!
—esan zuten osaba illobak.

—Arratsaldeon duela D. Jose lagunakin— erantzun zuten danak.

—¿Posible ote da —esan zuan Franziskak— zaldun au dala...

—Anjel —erantzun zion irribarre egiñaz indianoak—. Ni naiz mutil gaizto ura, orain amar urte asarratu eragiten nizuna beti arrika etxe aurreko intxaurrari, nere osaban ondorean Etxe-alaira etorten nintzanean.

— ¡ ¡Bedeinkatua izan dedilla gure Jaungoikoa !! Nork esan lezakean berori zan beziñ...

(a) igortzen.

— ¡Zer berori eta zer perretxiku ustel!...

“Orixe bear genduke; zapaburua aña ez nintzanean ezagutu ninduenak berori eta jauna esatea.

“ ¡ ¡Infernuko Txomin!! Mikaelak ere ez du ezer galdu. Au bai dagoala neskatxa.

Mikaelak jatxi zituan begiak lepoko pañoloan punta atzamartuaz, eta aren larrosa koloreko masalla ederrak biurtu ziran krabeliña kolorekoak.

— ¡ ¡Zenbat azi dan Inazio!! ¿Eta Patxi nundikan dabill?

—Keixa ondoan gelditu da.

—Arek, ez dago zer esanik, lengo lepotikan eukiko du orain ere burua. ¡Amaitka bidar ernegatu eragin ziran txikitan!

—Eta beori, ¿nola ibilli da mundu oyetan?

— ¡Zorioneko beori! Ez nuke nai berri aitzerik, Juane.

—Bañan ezin utzi esan gabe.

— ¡Ba! bearko utzi nerekin aiskide nai badezu...

“Ni ibilli naiz ondo eta gaizki, guztira; baña Jaungoikoari eskerrak osasuna badet eta asko asko ez arren, ondasun piska ba-

ten jabe ere egin naiz; nere ustez naikoa, ogi puska bat janaz baztar onetan pozik bizi izateko. Asko nai diot eskiña oni, eta geyago nere osabari, zeñi (1) zor diotan naizen guztia.

“Nere artean esan nuan,... nuan... nere ollo lurrera, onezkero osaba zartua egongo da, eta nai det bere ondoan bizi bera zaituzteko eta biurtu, iñola al badet, neri egin diran (2) mesedeak... eta, esan da egin, emen nun iritxi naizen zerutik eroritako txoko onetara; baña... orain gogoratzen naizenaz, zuek... inguru guztiko aberatsenak izan bear dezute...

—Jaungoikoari eskerrak etzaigu falta artoa eta esnea.

—¿Zer esaten dezu, Juane? ¿Eta anaian ondasunak?

—¿Zer ondasun, Don Anjel?

—Berriz ere D. eta kalabaza erria. Jau-nak zeruan euki dedilla (3), (b), zure anayanak.

—¡¡Ay gure Jaungoikoa!!... ¡¡¡Or-la il zan!!! —esan zuten Juanek eta Fraiskak eskuak gurutzatuaz.

(1) ...osabari, berari zor diot naizen guztia-ta.

(2) dizkidan (a) diran.

(3) ...euki dezala... (b) euki, dezala...

—Seguru ezin esan nezake —esan zuan indianoak zerbait damaturik—, baña... oso gaizki zegoan.

— ¡ ¡Ay!! Ez beza ukatu... illa izango da.

—Bai ba zorigaiztoan... urte bi izango dira ura il zala —esan zuan indianoak—. Baña... ¿nola izan lezake zuek ez jakitea? ¿Eta arek zuentzat utzi zituan izugarrizko ondasunak?

—Gorde ditezela orain dauzkatena —erantzun zuten Juanek eta Fraiskak.

—Juane!... ¡Fraiska!... —esan zien apaizak, eskuakin sorbaldan juaz...— Negarra ez da aiñ mikatza ondasunekin danean.

“Bigar itz egingo degu gauza orren gañean, zergatik (1) gaur etzaudete orretarako.

Gaba iritxi zan izarrak agertuaz... Indianoa eta bere osaba alde batera eta Etxe-alaikoak bestera, alkarri gabon esanaz abiatu ziran bakoitza bere etxera.

— ¡Il da!... ¡Il da! —esan zioten Patxiri aitak eta amak etxera eldu zira-nean.

(1) ...gañean, gaur etzaudete orretarako-ta.

—Eta... ¿Diru asko utzi du? Eta... ¿gurezat utzi ditu? —galdetu zuan Patxik begiak bris bris egiten ziotela.

— ¡Patxiko! —esan zion aitak asarraturik—. Oso biotz txarra dezu eta lotsatzen naiz (1), zuri semearen izena eman bearrak.

Andik laster sartu ziran bakoitza bere aposentuan. (2)

Keixak aztu ziran... an jan zituzten goizean olloak eta zerriak... Aztu zan goizean Bergarara (a) joatea.

Etxe-alaiko danak, osabaren eriotza zeukaten gogoan; Patxik, zerbait izango zuan esperantzarekin; gañerakoak negar egiteko.

Biaramon egun sentiyan zijoan Don Jose Etxe-alai aldera.

Beste batzuetan eraman oi zuan bezela, ez zeraman orduan bere eskopeta, eta laguntzen zion bere illoba Anjelek.

Eldu ziradenean Etxe-alaira, arkitu zitu en Juane eta gañerakoak, aurreko arra-

(1) ...lotsatzen nau...

(2) ...gelan.

(a) Bergarako.

tsian utzi zituen baño zerbait sosegu geyagorekin.

—Ya... ba, Juane, —asi zan esaten indianoa—, emen... argi itz egin bear degu. Nola difuntuak utzi ziñuen bere ondasunen jabe, konbeni da, eta bear dituzu zeureganatu, besterik ez bada ere limosna egiteko.

—Arrazoya du, Don Anjel,... ala gustatzen zait (1) gizonak.

—Orain esango dizuet zer gertatzen dan gauza onetan. Zure anaya zan bost egun milla errialen jabe.

—¡¡Bost egun milla errial!! —esan zuan Patxik—. ¡¡¡Eta sekula txanpon bat bakarra ez ziguen bialdu!!!

—Zure anaya zan oso diru maitea... Baña... utzi ditzagun pakean ildakoak, eta egin dayogun gerra zuen ondasunak jaten bizirik daudenari.

“Zure anayaren azkeneko enkargua artu zutenak zabaldu dute Amerikan, egin dutela difuntuan borondatea, Jaungoikoak agintzen duan bezela; eta an, iñork ez du sinisten gezurretan dabiltzanik.

(1) ...zaizkit...

“Onela ba bear diozute eskribitu ainbat lasterren eskatutzen (1) (a), arrazoi dan bezela, zuen gauzak, eta euren buruak gorrak egiten badituzte, billatuko degu erremediyua gorraizea sendatzeko.

—Ongi da Don Anjel —esan zuan Juanek—. Guk egingo degu beorrek esaten duan guztia.

Nola Etxe-alain ez zegoan zerekin karta egin, apaizak bialdu zuan Patxi esanaz:

—Esan egiok gure Josepari emateko papera, tinta, luma eta oblia batzuek.

Patxi guztiz nagia zan, baña nola (2) zeguan ezkurran zurru murrua, berantzat ere zerbait izango zan ametsean, lau brin koan eldu zan Don Josen etxera.

Andra Josepa zan emakume bat, ez zarra eta ez gaztea, guztiz ona eta txit esku zabala.

Patxik billatu zuan andra Josepa sekula baño umore obean, eta kontuak esateko gogo aundiakin.

—Andra Josepa —esan zion Patxik—,

(1) (a) ...eskatuaz...

(2) ...nagia zan, baiña ezkurran zurru murrua zegoan-eta...

eman bear dit (1) ainbat lasterren eskatutako oyek.

—Jesus, gizon,... Ez ari aĩn burduntzia izan, itxon zak puska bat, ez zera-mak urjolak garirikan.

—Baña ¿ez daki nekez juaten banaiz asarre egingo diatena apaizak eta Don Anjelek?

—¡Zer egin biar ditek asarre, aingurak baño obeago diran kristauak!

“Ogei bat urte badituk Don Josekin nagoala, eta oraindikan etzioat ikusi arpegi illunikan. ¿Eta Anjel? ¡Apota! ¡Lurrak ez dik bere gañean ume obeagorik! ¿Ikusi dek zer mutil ederra etorri dan?

—Eta esan beza, andra Josepa. ¿Aberatsa etorri al da?

—¡¡Izugarri!! Baeki ark ekarri dituanak... ator beran aposentura (2), eta an ikusiko duk zer dan gauza ona.

Patxi eta andra Josepa sartu ziran kuxatillaz eta narruzko maletaz beterik zegoan aposentu (3) baten.

Andra Josepak eregi zituan ayetako iru

(1) dizkit.

(2) ...gelara...

(3) ...gela...

edo lau eta erakutsi ziozkan Patxiri ayen barruan zeuden urrezko eta zillarrezko gauza ederrak.

Begiak iges egin nai zioten Patxiri ayek ikusi zituanian... Andra Josepa ezin kabitu zan bere larruan Patxi ala ikusita.

—Au... —esan zion Patxiri, biatzakin señalatuaz iltze oriz josita zegoan kutxatilla bat—, au... zioz itxita zazpi giltzarekin (1); artu zak eskuetan —esan zion begi bat kiñatuaz.

Patxik egotzi zion eskua eta ozta ozta jaso zuan lurretik ontzabeten bat. Atzera uzterakoan aitu zan txin... txin... ots bat, Patxikori zarrada eragin ziona. Andra Josepak, algara egiñaz, esan zion:

—¿Zer uste uan gizajo orrek, arta lastoz betea zegoala?

Patxik ez zuan aditzen andre Josepak esaten zionik. Etzegoan bere artean, izardi larria ateratzen zitzayon eta milla gorazio txar jayotzen ziran aren buruan.

—¿Zer deizkiok orri Patxi?

—Duroz betia egongo da ¿e? (2)

—¡A kaiku aundia! Duroz ez, baizik

(1) ...giltzekin...

(2) Duroz betea egongo da (¿e? ez du ekartzen).

lau kantoiko ontzako zarrez zeok ori be-
tea.

Au aditu zuanian Patxik, galdu zuan bere burua eta txoko danetara begiratuaz eman zuan pauso bat ukabillak estuturik andra Josepa zeguan aldera...

— ¡Patxi! ¡Patxi! —ots egin zuten sa-
soi onetan (1) eskalleratetik.

Patxik, birau izugarri bat boteaz, jo zuan ostikuaz lurra eta andra Joseparen ondoren joan zan eskallera burura.

An zegoan Inazio...

—Egun on dakuala, andra Josepa, —esan zion.

—Abil azkar, mutil, —esan zion Pa-
txiri.

“Ordubete onetan an zeudek ire zai apaiza eta Don Anjel.

“Ez al dakik oraindikan meza esateko dagoala Don Jose?”

—Itxon dezala... Oraindik ezta beran-
du —esan zuan Josepak—, Jesus batean jarriko dizutet gosari goxo bat.

—Eskerrak milla, andra Josepa, —esan zuan Inaziok.

—Zer esker eta zer adar... Nik esaten

(1) ...artan...

det gaur ez zeratela juango Etxe-alaira lukainka mutur bana jan eta txakolin zurrut bana eran gabe.

“Alkarrekin busti bear degu gure indianoaren etorrera.

—Beste egun baten etorriko gera, andre Josepa, —esan zuan Inaziok.

“Igandean meza ondoan artuko degu berorren gonbita.

—Ondo da ba, nere semeak,... ez dizuet lantegi txarrik eragin nai (1), eta badakizute nere borondatea zuentzat; baña nai nuke Inaziok ere ikusi ditzan Patxik ikusi dituan gauza ederrak.

—Ez andria, ez, orain ez degu astirik orretarako... beste batean izango da —esan zuan Inaziok; eta au esanaz, artu zituan mayan gañean gertu zeudenak eta anai biak artu zuten etxera bidea.

(1) Lenengo argitaraldian: ...ez dizuet lantegi txarrik ez dizuet eragin nai,... Bigarreno ez dizuet egilleak uste gabeen sartua izango zalakoan, kendu egin degu.

III

Orañ ikusiko dezute nola izan leikean egarriak egon eta urik ez gogoratzea.

Udaberriko arratsalde eder bat zan.

Don Jose eta bere iloba indianoa, ba-koitzak bere eskopeta anka artean arturik, zeuden muga baten gañean eserita, aurreko egian ji eta jau zaunkaz zebiltzan erbi zakur eder biri begira.

—Osaba —dio Anjelek—. Uste det Pintok eta Leonek lorratza galdu dutela. ¿Obe ez genduke etxera joatea? Zergatik (1) illuntzera dua eta berori ez da gauzako gabaz bide txior abetan ibilteko.

—Arrazoya dek, Anjel; arratsaldean asko ibilli ez bagera ere, oso nekatua arkitzen nauk; abarka zar batek aña ez diat

(1) ...Illuntzera doa eta berori...

balio, Anjel, eta onezkero, obe izango diat nik, neguan suan ondoan eta udan itza-lean, pake pakean egotea.

Osaba illobak jarri zituzten eskopetak bizkarrean eta fiüt fiüt zakurrei txistu egiñaz, jetxi ziran mendiyak bera.

Anjel zijoan aurrena, eta etxera bidea utzirik artu zuan Etxe-alaira zijoan bide txiorra.

—¿Nora goaz? ¿Etxe-alaira? —esan zion Don Josek...

—Bai, osaba; antxe atsedengo degu piska bat, eta nik erango (1) det trago bat ur, egarriak itotzen nauka eta...

Osabak, irribarre egiñaz, esan zion:

—Ta... ta... ta... ¡Anjel! Ainbeste baztar ikusiya izanik, ez daukak abilidaderik ire desioa ezkutatzeko.

—¿Zergatik esan du ori, osaba? —esan zuan Anjelek, anpolayaren kolorea artuaz.

—Zergatik (2) ez diat nik uste Etxe-alain atsegin lezakela, pago zar onen itza-lean baño obeki; eta ur goxoagorik eran

* (1) Lendabiziko argitaraldian: **eran**, ustegabeen seguru asko; **erango** bear du dudarik gabe. Beste bitan **erango**.

(2) Ara ba... ez diat nik...

ere or altz tartean dagoan iturrian baño.

—Baña, emen...

—Esan zak emen ez dagoala Mikaelarik, pitxarra eskura emateko.

—¡Osaba!...

—Esan zak egia, Anjel,... aitortu zak, Mikaela ikusteko pozak eramaten auela egunero Etxe-alaira (1). ¿Zer gaitz zioz gauza orretan, izanik bera neskatzia on bat, eta ire asmoak zuzenak?

—Egia da, osaba, oingoan igarri dio.

—Guk, burua zurituta degunak, urrutitikan usaia artzen diagu.

—Bai ba, osaba, maite det Juanen alaba, eta uste dut berak ere ez daukala iguirik neretzat, eta barkatu beit, osaba, orain artean ixilik idukitzea gauza au.

—Ez duk ixillik iduki, ez, Anjel, zergatik (2) ezin ezkutatu dik ire arpegiak biotzak sentitzen duna.

“Baña ¿zer egiten duk ire intentzioak erakutsi gabe Juaneri, Fraiskari eta aurrena Mikaelari berari?

—Ain dirade zuzenak eta leialak eze,

(1) ...eramaten auela Eche-alai'ra (egunero falta da).

(2) ...ez, Anjel; ezin eskutatu dik...

beldur naiz, osaba, arrazoirikan aditu nai-ko. ez dutela, beste asko eta askok pozik adituko litukian arraizoiarengatikan bera-gaitik... Ni naiz aberatsa, eta erak ez.

—Orrek ez dik arrazoyaren izenik merezi. ¿Noizdik duk pekatu aberatsa izatea, aberastasuna ekarri bada, ik ekarri dean bezela, ere izardiarekin irabaziya?

—Ez osaba, baña... denbora gutxi barru... erak izan litezke ni bezin edo ni baño aberatsagoak, eta orduan...

—Orduan esango ditek (erak ez zergatik (1) ez dute biotz eta pentsamentu txarrik), baña bai beste mingaiñ luzen batzuek, diruagaitikan ezkontzen aizela.

—Arrazoa du, osaba, ez zitzaidan orrelako gauzarikan bururatzen.

Onetan eldu ziran osaba illobak Etxe-alaira.

Juane, bere emaztea eta semeak ari ziran etxeburuko soroan arta jorran.

—¿Zer berri da, Juane? —esan zuan Don Josek.

—Ez dago gauza berririkan, jauna. Goizian izan da Inazio Bergaran eta Amerikako korreoa etorriagaitikan, ez zan gu-

(1) ... (erak ez, ez dute...txarrik-eta).

retzat kartarik... gure esperantzak eta gaberdiko zakurran ametsak berdin...

—Zer amets eta zer... —esan zuan Anjelek—,... beti ur epelean ibilli gabe, oingoan gogor asi bear degu.

—¿Eta zer nai du ba egitea?... Dua-zela Jaungoikoarekin, gorde ditzela bostegun milla errialak eta gastatu ditzatela osasunarekin... gu, biziko al gera gere pobrezan...

—Arrazoya du aitak —esan zuten Mikaelak eta Inaziok.

—Orixe esaten dut neronek ere —geitu zuan Fraiskak...

—¡Mokorda zar bat! —esan zuan Patxik, eskuan zuan atxurrarekin, bost edo sei artalandara zatituaz.

—¡Tripa erre! —esan zion amak—. I bezela izango gaituk,... dirua beste Jaungoikorikan ezagututzen ez dekan ori! ¡Orretzek galdu bear au i! ¡Orretxegatikan ustelduko aiz i kartzelan batean!...

—Bai, Fraiska, bai, asko da —esan zuan apaizak—, oinguan parte arrazoia dauka. Neri begitantzen zait, alferra izango dala berriro eskribitzea, zergatik (1)

(1) ...eskribitzea ezagun da... dabiltzana-ta.

ezagun da testamentarioak fede gaiztoan dabiltzana, eta nik uste dut onena izango litzakeala zeutako bat sartu ontziyan eta, "gari berriak arte" esanaz, bertara joatia...

"Juane ez dago orretarako edadean... Patxik ez du eskolarikan...

—Berak ditu kulpak, jauna, —esan zuan Fraiskak—, amaika alegiñ egin zayo bere denboran, baño gelditu zan, goiko abe zar ori baño eskola geyago bage. ¡Ez du arreban antz aundirikan! Gaixoak ez du izan Inazio beste maisurikan. Lau egun ez dirade eskribitzen asi zala eta egiten (1) ditu esola batzuek ederra-goak... ¡Erai begira txoratu egin lezake!

—¡Bai! —esan zuan Patxik— ori sayatzen da ikasten... Don Anjelen aurrean lotsatzen dalako, eskribitzen ez dakila esaten.

Mikaela jarri zan txingarra baño gorriago.

—Ondo egiten dik —esan zuan amak— ez, i bezela izango duk, atxur kerten ori...

—Pakea, Fraiska, ¡pakea! —esan zuan Don Josek—; esanak esan, eta goa-

(1) ...egin ditu...

zen beste artikulo batera... Inazio... ¿izango uke animorikan liña potzu aundi aretan sartzeko?

—Apaiz jauna, nere aitak eta nere amak agintzen badirade, ni joango naiz munduan azkeneraño.

—¡Ay Don Jose! —esan zuan Fraiskak— ¡Nere sabeleko seme maitea, itxasora bealdu!

—Arrazoia dauka Fraiskak —esan zuan Juanek—, gizona, idiya dabillen lekuan.

—Ez zazute umekeriarik esan —dio Anjelek—. Itxasoan bezelaxe etorri lezake, usterik gutxien degunean, lurrean ere eriotzako ordua. Inor ez da itotzen Jaungoikoak nai ez duanian, eta arek nai duanian, ito lezake katillu bat uretan ere...

—Egi aundia, Don Anjel —esan zuan Inaziok—.

“Ia ba, aita, baldin beorrek eta amak nai badute, joango naiz salto bian Amerikara eta beriala naiz biurtu nere bostegun milla eta ondarrak arturik poltsan, zergatik (1) negargarria da, emen pobreak

(1) ...poltsan; negargarria...

egonik, gure txanponekin farra egin dezen prestuez aiek.

—Arrazoia duk —esan zuan aitak—. ¿Zer deizkiozu zuk, Fraiska?

—¿Nik zer esatea nai dezute? Zuek egiten dezutena ikusi, eta... Ama Birjiña Karmengoak gorde dezala nere biotzeko semea.

—Au ikusia dago —esan zuan Don Josek—. Egin ditzagun gañera bear diraden prestamenak eta joan dedilla Inazio aibat laisterren.

Andikan zortzi egunera sartu zan Inazio, Donostiatikan ateratzen zan ontzi batean; ango ezagun batzuentzat Anjelek eman ziozkan karta batzuek, eta Don Josek, nai ta nai ez, poltsan jarri ziozkan urre zar batzuek berekin zituala.

IV

Inazio Indietara joan zanetikan bost edo sei illabetera, Etxe-alaikoak ari ziran goiz batean gosaltzen, galdara ori bat esnez betea aurrean zutela...

Naigabe aundiak igaro bear izan zituzten etxe aretan... Mikaelak galdu zitu bere kolore ederrak; Fraiska eta Juane zeuden oso narrastuak, eta danak ezagun zuten eren arpegietan, biotzak negarez zeuzkatela.

—Mikaela,... —esan zuan amak—.
¿Zergatikan ez dun jaten?

—Jaten ari ez naiz ba, ama,...

—¡Bai... eta oraindik ez dun mokadurik aon sartu!

—Ezin nezake, nai ta ere, ama.

—Jateko gogorikan ez badun, kontu egin zan botika dala, eta ortzak estutuaz...

barrura... zergatik (1) jaten ez duana, badakin,... il egiten dun... ¿Baña... zerk kendutzen din gogo?

—Alferrik da ori galdetutzea —esan zuan aitak—. Anjel gaixorik dago, eta onek ere alaxe nai du.

—Eta jarriko da, eta ilko da —esan zuan amak—. Gosaldu zan, Mikaela, begira zeñen gozoa dagoan esnea. ¿Nai dun arrautza bat auspean epeltzea?

—Baña ez izan gogorikan, ama.

—¡Alaba! iduki ezan konfiantza Jaungoikoagan; Anjel sendatuko dun aurki eta joango ditun deabru etxera naigabeak.

—¡Ay nere ama maitea! Baldin Anjel iltzen bada, ilko naiz ni ere.

—¡Il! ¡il! Ez ezan esan txorakeriarik, neska,... Barberuak esan din okerre-na igaro zala. ¡Zer ba! ¿Ari bakarrik gertatu al zayon eizean dabillega, tiroak er-ten eta eritzea? Amaikatxo baditun ala-koak, sendatu eta ezer izan ez balute bezela gelditzen diradenak... Egia dun, len-bizi sinistu genduala gauza okerragoren bat, baña orain, Jaungoikoari eskerrak, ez zegon zergatik beldur izan.

(1) ...barrura; jaten eztuana...

— ¡Au geyegi da ! —esan zuan Patxik, lurrera botaz eskuan zedukan kollara—. ¡Beti indianoa gora eta indianoa bera ! Berregun milla deabruk eraman bazuten ere, ez zan ezer galduko.

— ¡Patxi ! —esan zion aitak—. Ez ezak Anjelen izenik aotikan atera bedeinkatutzeko ez bada.

— ¡Bedeinkatutzeko !... Ematen digu-nagatikan...

—Ematen ziguk, guk merezi degun eta bear degun baño geyago.

—Ba nik esaten dut, zeken aundi bat dala...

¡Patxi ! —deadar egin zuten aitak eta amak, maitikan jaikiaz. (1)

— ¡Etxea bete urre iduki eta ala ere, utzi lana egin dezagula astoak bagiña bezela !

“ ¡Damugarria da, tiroak sayatsetan jo zuan bezela ez jotea garuñetan !

—Ixilik egon ari, ixilik, lotsagarri eta pizti gaizto ori !

— ¡Ez naiz ixilik egongo !

(1) ...eta amak maitikan. (jaikiaz falta da).

— ¡Ik galdu bear gaituk! ¡Ik, bizia kendu bear diguk! Ire anai gizəjoa joan zan ezkerro, ez diguk utzi egun bat bakarra pakean igarotzen. ¡Ay! nere biotzeko Inazio maitea! ¡Ay! Ura etxian egon balitz, beste gauzarik izango uen.

Eta ama gaixoak eman zion negarrari, Mikaela ere ala zegoan, eta aitak, itzik esateko almenikan gabe, makurtu zuan burua eta erori zitzaizkon begietatikan paparrera ur aleak baño negar malko aundiago bi...

¡ ¡ ¡Madarikatua izan dedilla betiko, gurasoen begietatik negarra ateratzen duan umea!!!...

Naigabez beterik gelditu ziran jan baño negar egiteko gogo geyagorekin.

— ¡Juane! ¡Juane! —deitzen zuan gizon batek etxe aurreko larrañetikan.

Juane alkandoran esku muturraz begiak igortziaz atera zan leiora.

— ¿Kaixo, Simon! ¿Zer dakartzu onera?

—Berri onak, Juane,... Atzo Bergaran izan nintzan eta korriuan eman ziden Amerikako karta bat zuretzat —esan zuan Simonek, txapeletikan karta ateriaz—. No-

la (1) bart berandu etorri nintzan, ez nuan aterikan jo nai izan.

Au aditu zutenean, danak arrapastaka joan ziran larrañera, eta Juanek artu zuanian Simonek eskuetan zedukan karta, pozezko garraxi bat egin zuan, ezagutzean bere semearena zala. Fraiskak kendu zion eskuetatikan eta asi zan kartari laztanka paper guztiya negarraz bustiyaz.

Beste ainbeste egin zuan Mikaelak, amak utzi zionian.

Bakarrik Patxi zegoan sorbaldak jasoz ezer ez balitza bezela...

—Baña... ¿zertako dirade aspamentu oiek ez badakigu oraindikan, Inaziok artu dituan edo ez diruak?...

Bai... Patxik, aitak esan zuan bezela, biotz gogorra zeukan. Ez zitzaion ajolarik jakitea bere anaia bizi zala. Bere guraso eta arrebaren biotzak betetzen zituzten poza sinisteko, jakin bear zuan bere anaia aberatsa ote zegoan. Baldin ala ez izanik (2) ¿zer ardura zitzaion Patxiri bizirik edo illik egon zedilla bere anaia?

Juanek bereganatu zuan azkenean kar-

(1) ...ateriaz. Bart berandu etorri nintzan eta...

(2) Baldin eta ez izanik...

ta, eta irikiaz beldurrez asi zan onela irakortzen...

—Nere aita, ama eta anai arreba maiteak; zuengandikan alderatu nintzan ezkerro, naigabea eta tristura izan dut lagun ordu guztietan. Ni, Amerikara joateko (1) Donostian sartu nintzan ontziak, izan zituatan bidean milla eta milla estrapuzu, baña ala guztiaz ere urreratu giñan zorioneko Indietarako lurrera. Danon ustea zan seguru giñala, baña gure Jaungoikoak erakutsi nai zizkun oraindikan estutasun gogorrakoak... Beingo (2) (a) batean atera zan aize mot izugarri (b) bat, agertu ziraden olatu batzuek mendiyak bezelakoak, illundu zan zerua, eta trumoi orruaz bat batera asi ziran orruntz onuntz (3), galda galdan dagoan burnia baño gorriagoko oñaztuak.

“Gure ontzia, tantai luzeak aizeak eramantik eta tximistak zatiturik, zebillen ur gañean, gaztaña orbela ibiltzen dan gisa (4) uda azkeneko aizearekin, noiz baño noiz geldituko olaturen baten azpian geia-

(1) ...etortzeko...

(2) (a) Beingo batean...

(b) ...aize bolara izugarri bat...

(3) onuntz orruntz...

(4) gisan.

go ez agertutzeko. Alako batean tarra tar tar tar egiñaz, banatu zan ontzi zarra, eta nerekin zijoazen lagunik geienak izkutatu ziraden itxasoaren barrenera geiago ez azaldutzeko. Nik orduan agur egiñaz mundu oni, artu nuan eskuetan, etxetik atera nintzan besperan nere ama gaixoak lepotikan zintzilika jarri ziraden Ama Birjiñari (1) (a) Karmengoaren eskapularioa, eta biotz guztitikan muñ egiñaz, eskatu nion gorde zezala, konbeni bazan, nere bizia, ez neregatikan baizik nere guraso maiteak izango zuten naigabe samiñagatikan, eta salto egiñaz itxasora, eldu nion ur gañean zebillen zur zar bateri.

“Zur onen laguntasunaz, piskaka piskaka nijoan gerturatutzen itxas baztarre-
ra, baña nere indarrak aitu ziraden; eta
(2) itxasoa zan geroago eta asarreago.
Credo bat esan nuan eta banihoan begiak
betiko itxitzera, ikusi nituanian neregandikan ez urrutira iru gizon erdi larrugorrian txalupa txiki batean, euren bizia gal-
tzeko zorian neregana zetozela; zerura

(1) (a) ...Ama Birjiña Karmengoaren...

(2) ...aitu ziraden, eta banihoan betiko...

begiak jasoaz egin nuan azkeneko alegi-ña, eta ozta ozta (1) eldu nintzan txaluparen sayatsera. Artu ninduen besoetan kristau on aiek, eta andikan laster jarri nuen nere oña, aspaldi ikusi ez nuan lur legorrian... Baña ¡zein errukigarria!... Nere besoak zeuden etenik (2) (a) eta nere eskuak danak odolduak, zutirik egoteko gauza ez nintzala... Sekula, bear bezela, maitatuko ez ditudan gizon ayek, egin zuten angalla bat, etzan ninduen bertan, eta (3) basorik baso eldu giñan erri txiki batera, nun (4) euren ume bat banintza bezela eta ama batek bezin naitasun bigunarekin sendatu eta zaitu ninduen. ¡ ¡Jaungoikoak sartu ditzala zeruan erdi erdian aín biotz ederreko gizonak !!

“Piska bat indartu nintzanean, biotzaren erditik eskerrak emanaz nere ongilleari, joan nintzan nere osaba bizi izan zan errira.

“Ikusi nituan osaba ditxosoan (1) testamentarioak eta... baña... ez dut nai zuen

(1) ...eta ozta eldu nintzan...

(2) ...etenik zeuden...

(a) ...etenda...

(3) ...bertan, basorik-baso...

(4) ...batera; an, euren ume...

biotzik zauritu, gizon gaizto ayek neri esan eta egin zizkidaten gauzak esanaz.

“Esan ziden gezurretan nebillen bat nintzala, eta burla eta farra egiñaz, bulzaka bota ninduen etxetikan...

“Baña gizonen artean billatzen ez badegu justiziarik, gure Jaungoikoak begiratuko du guregaitikan. Ala ba, esperantzarikan ez galdu, eta bien bitartean poztu zaitezte, besterik ezean, jakiteakin bizi naizela guztion onerako bear egiteko.

“Ikusi ditut Anjelen adiskide batzuek ere, eta euren artean euskal¹un bat, zenek nai didan anai batek bezela. (2)

“Danak esan dire lagunduko diratela alegin guztian.

“Denbora askotxo beariko dut gauza abek garbitzen, zergatik testamentarioak gogortuak daude guri ostutako armakin (3), eta diruak emen, or bezela, ate asko irikitzen ditu...

“Uste dut, oraingo ezkonduak egongo dirala Anjel eta Mikaela, eta ez dago zer

(1) Euskal Esnalea'k aterian: ...nituan osabaren testa...

(2) ...eta euren artean anai batek bezela nai didan euskaldun bat.

(3) ...garbitzen, testamentarioak gogortuak daude guri ostutako armakin, eta diruak...

esanik biziko diradela aingeruak bezela, Don Jose eta andra Joseparen konpañian; egunero gogoratzen naiz guztiokin... Eskumuñak Simon uztargiñari, Etxe-berriko Mariyari eta nerekin oroitzen dan guztia-ri, eta amak segi dezala erregutzen, oi duan bezela, Ama Birjiña Piedadekoari, ni gorde nazan orain arte bezela.

— ¡ ¡Ay nere sabeleko puska !! —esan zuan Fraiskak eskuak gurutzatuaz—. ¡Zenbat estutasun, eta zer gertutikan ikusi duan eriotza nere seme maiteak! Baña Ama Santisimak gorde du.

—Balio izan dionagatikan... —esan zuan Patxi.

— ¡Patxi! —esan zion (1) aitak, sekula baño aserreago—. Oiek ez dirade zure gurasoetatikan artu dituzun lezioak...

— ¡Gu errukiñak! —esan zuan Fraiskak negar egiñaz—. ¡Ume onetxek kendu bear digu biziya eta bialdu bear du bere burua kalabozon batera!

...Nola Anjel zegoan jaikitzen ez zala

(1) ...esan zuan...

eritu zan ezkerro, sarri bialtzen zuten Patxi aitak eta amak aren berri jakitera. (1)

Patxi zan geroago eta zakarragoa, eta ainbeste naigabe ematen zituan (2) etxean egunero bere gurasoari ze, asi ziran osasuna galtzen beldur izateko moduan.

¡Beste gauzarik zan Patxi apaizaren etxean! Izutuak zeuden aren argitasunarekin eta izketa legunarekin; eta andra Josepa (3) eroturik Patxi ala ikusita, gertatu oi zion makiña bat mokadu gozo, eta erakusten ziozkan nun eta nola zeuden etxeko gauza guztiak.

(1) Anjel zegoan jaikitzen etzala eritu zan ezkerro, ta sarri...

(2) ...ematen zieten...

(3) ...andra Josepa'k...

V

San Migel egun batean, eguzkiak Irimo gañetikan iges egiten duan sasoiean, kee beltz mordo batek irteten zuan, Korosotikan Anzuelara datorren bidez gañean zegoan pagari batetikan, non (1) señaile zan txendorren bat zegoala egosten... Eta ala zan izan ere.

Ikazgin bat txendorrari betegarriya sartzen, eta beste (2) iru edo lau aren lagunak, ari ziran pagari barrenean subill gertatzen beste bat sututzeko.

Txendorraren garaiko aldean ikusten zan etxabola (a) bat, iru pago adarrekin egiña, eta garoz azpitik eta zoiez gañetik estalia.

(1) ...batetikan; señaile zan...

(2) ...eta iru edo lau aren lagunak... (beste falta da).

(a) txabola (eta ala dio beste guzitan ere).

Ikazgin aietako bat joan zan etxabolara, zirri (1) bat egin zion etxabolako ate muturrian zegoan suari eta non zegoan (2) gal gal gal egosten topinkada bat baba, jarri zuan talo burnia berotzen eta botarik gabela batera ura, gatza eta arto iriña, asi zan zaplaka oreka gertatzen taloak egiteko.

Abek erre zituanian, jarri zituan eskuak tronpetan gisa, eta euu... u... u... egin zuan deadar luze bat... "Bai"... erantzun zioten lagunak, eta, utzirik aizkorak pago gerrietan sartuta, abiatu ziraden etxabola aldera, batek gerrikoa lotu, besteak zintz egiñaz...

Jan zituzten baba eta taloak (a), erre zuten pipada bana, baña ala ere iñor ez zan mugitzen... Illundu zuan (b) izarrak agertuaz, eta ari ziran ikazgiñak txutxu mutxu alkarri belarrira itz egiñaz; ezagun zuten soseguz ez zeudela...

Gizon bat azaldu zan bideak ziar eta asi zan pagaria gora etxabola aldera...

(1) ...etxabolara ta zirri...

(2) "...suari; sutan zegoan gal gal gal..."

(a) "Jan zituzten baba taloak, eta erre zuten..."

(b) "Illundu zan..."

Ura ikusi zutenean jaiki ziraden ikazgiñak...

—Guazen —esan zuan gizon arek—, ez dezagun denborarikan galdu, zergaitik (1) nik goiz joan nai niked etxera, iñork gauza txarrik sospetxa ez dezan...

Guazen ba —erantzun zuten ikazgiñak.

—¿Ezer badaramazute? —esan zuan gizonak.

—Ez da ezertxo're...

—Or konpon, Mari Anton. Nik zera-mazkiat bi pistola eta kañabeta...

—Gu goaz lapurretara, eta ez eriotzarik egitera —esan zioten ikazgiñak...

—Bakoitzak ondo datorkiona egin dezala —esan zuan pistola dunak—. Baña... ez dezagun denborarikan galdu... Bidean esango dizuet zer egin bear degun...

Beltzitu zituzten arpegiak iduri bustiarekin eta joan ziraden pagaria bera...

—¿Zergaitikan ez dator Mitxel? —esan zuan armatuta zijoanak.

—Txendorra betegarri eske dago eta bear da bat emateko —erantzun zuten

(1) ...galdu; nik goiz...

ikazgiñak—. Gañera, aren lanak ez du gutxiago balioko, guk egiten degunak baño.

—¿Nola izan lezake ori?

—Kantuan egiñaz...

—¿Zertarako?

—Oñatitikan datozenak aditu dezaten, eta bigar edo etsi okerrikan balitz, esan dezaten San Migel arratsean ikazgiñak pagarian zeudela...

—¡Mutill azkarrak zerate!

—Bai... eta egin dezagun aberatsak izateko bidea.

Andikan ordu erdi batera zetozen Koroson barrena bi gizon, elatzean zintzilik dagoan abarka baña igarragoak, eta ukalondotatikan ere berriketa zerioela. Zetozten bakoitzak bere kana bizkarrean zutela, eta loturik aien puntan aspandar pieza laurden bana.

Pagari goenean aditzen zan kanta bat esaten zuana...

*Goiz, eguardi eta arrats
beti porru salda,
kopatsu nai izatea
arrazoi ez al da?
burrin burrun bun*

*kopatsu nai izatea
burrin burrun bun
arrazoi ez al da?*

—Mitzel deabru orrek ez dik beste ametsik, kapañeri burla egitea baño —esan zuan batek.

—Eori ere ez aiz ba ixilikan egotekoa —esan zuan lagunak— ¿zergatik erantzuten ez diok, jakiñik, ik dakizkan bezela, itxu batek aña kanta...?

—Aspaldi onetan joan zaizkidak kantatzeko gogoak Don Josen etxean igarotzen danarekin.

—Arrazoia duk; txit damugarria duk indianoari gertatu zaiona.

—¡Anjel gizajoa! Sinistu zak... Baldin da baldin ura iltzen baduk, gure Manuri ez zaiok sekula begirikan legortuko.

Berak eman ziokan lenbiziko bularra eta nai zioagu geure seme bat balitza bezela (1). ¿Eta Don Jose gizajoa? Ikusiko duk, Anjel iltzen bada, laster jarraituko ziok ondoren...

Ala itz egiñaz bazijoazen kapañak eren bidean, eta Mitxel gelditu zan geroago eta gogoazgo kantari...

(1) ...eta nai zioagu geure seme bat bezela.

VI

San Blasko apaiz jaunaren etxea zegoan intxaur arbolaz inguratua eta eleizatikan ogeiren bat kana bezela, zan arlanduzkoa eta ego aldera zedukan baratza eder bat.

Alde onetaraxe zeuden lo egiteko apotentuak (1) eta bai ere sukaldea. Sukaldekoko leioan azpian zegoan etxetxo bat, nun idukitzen zituzten (2), zimaurrez gañera, atxur, laya eta ostiango joan etorriak.

Denbora aretan oitzen zuten nola pobreak ala aberatsak goizean goiz jaikitzea, eta orrengaitikan, arratseko zortzirak ezkerro aundi eta txiki egon oi ziran ankaz gora.

Lenbiziko loa izan oi da gozoena eta

(1) gelak.

(2) ...etxetxo bat; an idukitzen zituzten...

astunena... Don Jose... lo bete betian zegoan, andra Josepa ere bai... Anjel bakarrikan zegoan ernai, zergatik nai ezak lo gal erazitzen zion. (1)

Zakurrak okolluan asi ziraden zangaz... (a)

— ¡Osaba! —deitu zion Anjelek Don Joseri alboko aposentura. (2)

Apaizak ez zion erantzun... Zakurrak ez ziraden ixiltzen. (3)

— ¡Osaba! ¡Osaba! —deitu zion bigarren aldiz illobak.

— ¿Zer nai duk, Anjel?

— Pintok eta Leonek estu zaunkatzen dute eta iruritzen zait etxetxoko tellatuan nor edo nor dabilela.

— Bai... aizeak erabiliko zituk tellak eta zakurrak orrengatikan zaunkaz ariko (b) dituk.

Leon eta Pinto ari ziran geroago eta garratzago, norbaitek larrua kentzen bazioten bezela.

— ¡Osaba! —deitu zuan berriro Anje-

(1) ...zegoen ernai naizaek loa gelarazitzen zion-eta.

(a) zaunkaz.

(2) gelara.

(3) ...zakurrak etziraden ixiltzen, eta.

(b) aritu.

lek—. Uste dut sukaldeko leioari bultza egiten diotela.

—¡Ez ari txorua izan, Anjel! —esan zion Don Josek erdi lotan—. Aizian otsak dituk oik...

—Ikusi egingo degu ori —esan zuan Anjelek bere artean, eta zutikan egoteko indarrrik ez iduki arren, jaiki zan ogetikan eta ixil ixilikan iriki zuan leioa, baña aiñ illun zegoan eta alako aizerik zebillen eze, ez zuan ez ezer ikusi eta ez ezer aditu.

Itxi zuan leioa eta bazegoan oe aurrean...

Pinto eta Leon ari ziran geroago eta estuago.

Anjelek aditzen zituan len baño obeto tella otsak eta sukaldeko leioari egiten ziozkaten bultzatuak. (a)

—Ez, ikusi bear dut zer dan ori —esan zuan bere artean, eta eskopeta artuaz joan zan sukaldera, nun zegoan argi illun bat (1), katillu baten olioaz jartzen zuana egunero andra Josepak, Anjel eritu zan ezkerero.

Anjel sukaldera eldu zanean, rau, eregi zan bat batera leioa eta arpegia eta es-

(a) bultzadak.

(1) ...sukaldera; an zegoan argi motel bat...

kuak beltztuta zeduzkan gizon bat agertu zan bertan pistoleta eskuan zuala... Anjelek apuntatu zion bere eskopetarekin, baño tiroak irteteko astirikan gabe erori zitzaion eskuetatikan eskopeta, zatitua lapurrak tiratu zion pistoletazoarekin.

Lapurra, beste iru ondoren zituala, sartu ziran (1) salto batian barrura; eldu zioten danen artean Anjeli, bota zuten lurrera, estali zioten aoa zapi batekin eta lotu ziozkaten eskuak eta oñak... Beste ainbeste egiñik Don Jose eta andra Joseparekin, artu zituzten diru eta gauzarik onenak eta balio aundienekoak... Ongi ezagututzen zituan lapur aietako batek etxe aretako zokoak, bada zuzen billatu zituzten, batere okerrikan gabe, ondo izkutatuak zeuden ontzako zarrak eta beste gauza eder asko...

Bete zituzten iru saku, eta, nola ala zamatuaz ez zan errez leiotikan iges egingen, atera ziran atariko ate zabaletikan.

Auzoak aditu zuten lapurrak egin zuan tiroan otsa, eta gogoraturik gauza okerren bat, zebiltzan illunean, batzuek makillakin eta zuanak eskopetarekin, non izan ote

(1) ...sartu zan...

zan ots ura, lapurrak agertu ziradenean sakuak bizkarrean zituztela.

— ¡Geldi or! —deadar egin zuten lapur billa zebiltzanak, baña aiek orpoak jasoaz asi ziraden igesi.

¡Dimbi! ¡damba! aditu ziran tiro bi, eta lapur bat iztarrean eritua erori zan musuz aurrera... Beste irurak salto egiñik errekatxoa, esmendatu ziran an gertuan zegoan txara baten, eta txara ziar joan ziran Jaungoikoak daki nora...

VII

Lapurreta izan zanetikan zortzi illabetera, udaberriko arratsalde eder batean, zijoazen D. Jose eta Anjel Etxe-alai aldera.

Eskopeta orde zeramaten esku maki-lla lodi bana, eta aien (1) arrimoan pauso ematen zuten nekez, bide txiorra gora.

Ezin ezagutu zitzakean apaiz jauna. Aren lengo arpegi argi eta ederra oso narrastua zegoan, eta bere begirakuna tristetean ikusten ziran aren animako naigabeak... Ez zegoan asko obeki Anjel; gijajoaren arpegian makurra eta gorputzaren argaltasuna (2) ikustean iñork ez zion astebeteko bizirikan emango.

(1) ...oien...

(2) ...arpegian argaltasuna eta gorputzaren makurra etzion...

...Apaiz gizajoak, bera laguntasun premian arkituagatikan, lagundu eta animatutzen zuan bere illoba.

— ¡Anjel gizajoa ! Animatua adi —esaten zion— ¿Ez duk ikusten zer arratsalde ederra?... Muga guztiak loraz eta arbola danak ostoz betetzen ari dituk, eta adar bakoitzean txori bat ari duk kantari... Juanak... joan... Oroipen mikatzak aztu egin bear dituk. ¿Zer nai duk apostea, egun gutxi barru ezer izan ez bau bezela agoala?

— ¡Ay osaba ! Egia da, arbolak, zelaiak, txoriak eta inguru guztiak farrez eta kantari daudela, baña nere biotza negarrez dago.

—Lenago ere esan diat, jua zana joan uen (1). Orain egin bear duk igarotakoak aztu eta len bait lasterren sendatzera... Oraindikan gaztea aiz eta denboraz ezkonduko aiz Mikaelarekin eta danak biziko gaituk ongi.

“ ¡Zer ! ¿Ez al aiz gauza Etxe-alairano joateko?

—Beldur naiz, osaba, elduko ote naizen, nik txit opa izanagatikan...

(1) ...jua zana jua zuan.

—Sayatu gaitezen ba... Mikaela gaixoak ez zidukak, gu besterikan, nori begiak itzuli, eta iñola al degula, ez zioagu utzi bear bakardadean, bere anai gaiztoak ematen diozkan tratu gogorraren artean.

— ¡Bere anaia! ¡Ay osaba! Ez egonik lurrean justiziarikan alako pizti gaiztoarentzat ¿Non da Jaungoikoarena agertu gabe?

— ¡Anjel! Jaungoikoa justua duk eta beti zeduzkak gogoan gizonak egiten ditugun gauza txarrak eta onak. Patxik... naigabeak emanaz kendu ziek bizia bere gurasoari, eta, sinistu zak, lentxo edo ge-roago arkituko duk merezi duanarekin.

...Onela izketan eldu ziraden osaba illobak Etxe-alaiko atari aurreko intxaurretara.

Orduantxe zetorren Mikaela barrenetikan, mantalean artalea arturik eta purra esanaz larrañean aztarka zebiltzan egazti batzueri...

¡Gaixoa zegoan beltzez jantzia!

¡ ¡Lutua zedukan gorputzean!!

¡ ¡Lutua biotzean!!

Alegiñak egin zien osaba illobari sartu zitezteela sukaldera, baña aiek naiago izan zuten eseri atari aurrean zegoan liña arri

baten gañean, zergaitikan ez zuten indarrikan eskallerak gora ta bera ibiltzeko (1).

—¿Eta Patxi? —galdetu zion (a) apai-zak.

—Goizean Bergarara joan da, jauna, —erantzun zion Mikaelak.

—Artoak ereiteko egunetan gaude, eta oraindik ez dezute ankarik soroan sartu, ikusten dedanez.

“¿Zer asmo du zure anaiak nekazari-tzeari ala atzera uztean?

—¡Ay Don Jose! Ez dakit nik zer pasatzen dan gure etxean...

“Bi edo iru bidar izan gerade deituak Bergarara Patxi eta ni aitortzeko, beorren etxean egin zan lapurreta arengatikan kartzelan sartu zuten ikazgiñak zerbait esanik...

“Aspaldi onetan ez da iñor gurekin oroitzen, baña ala ere nere anaia joaten da Bergarara egun biz bat... Ez dakit nik zer esan eta zer pensatu, eta daukat erru gaizto bat, gauza onetxek ez ote zituan nere guraso maiteak galdu.

“¡Ay nere aita eta ama biotzekoak!

(1) ...gañean, etzuten inda... ...ibiltzeko-ta.

(a) ...galdetu zuan...

—esan zuan Mikaelak negarra txirrioan zeriola...

—Ia, ba, Mikaela... sosega zaite piska bat —esan zion apaizak...

“Konformidadea da, kristau guztiak degun zor aundi bat. Zure gurasoen bizia Jaungoikoana zan eta berak kendu zien.

“¿Ayenatu bear gera gure Jaungoikoak egiten duanagatikan?

“Pazientzia, ba, Mikaela, eta esan egi-guzu, zerk, zure ustetan, il zituan zure guraso zorionekoak...

—Izango dira sei edo zazpi illabete —esan zuan Mikaelak— asi zala etortzen gabaz gure etxera Patxikin itz egitera itxura gaiztoko gizon bat...

“Bai nere gurasoak eta bai ni, arritu eta ikaratutzen giñan gauza arekin.

“Arrats batean, oeratu giñanetikan laister, ikusi nuan nere aita, jaikirik oetikan, zijoala oiñ puntetan Patxin aposentuko (1) atera. Maiz oi zuan bezela, orduan ere zegoan nere anaia len esan dedan gizon arekin, atea barrendik giltzaz itxirik.

(1) ...Patxin gelako...

“Ordu laurdenen bat egon zan aita ate ondoan, eta biurtu zan berriz oera...

“Andi puntuko sentitu nituan nere aita eta ama gaixoak zotinka eta negarrez urtutzen zeudela... baña ixilik, ni lo nengoalako ustean.

“Biaramon goizean jaiki ziradenean ozta ozta zebiltzan zutik, eta esan zitzakean igaro zutela gaixo aldi izugarriren bat... eta zerbait izan bear zuan, zergatikan (1) andik iru illabetera il zan nere ama maitea, eta illabete geroago itxi zituan betiko begiak nere aita gizajoak...

—Egia balitz —esan zuan Anjelek bekokia joaz esku zabalakin—, egia balitz neri orain bururatu zaidana...

—Ixilikan egon ari, Anjel, —esan zion osabak—, alako gogorapenik egin gabe... ¡Ori egia balitz infernuak ere ez likek artuko!

Mikaelak ez zion igarri osaba illobak esan nai zutenari...

—Eta... ¿zer bizimodu egiten dezu, Mikaela gaixoa, gurasoak il ziraden ezkerro, zure anaiarekin? —esan zion Anjelek.

(1) ...bear zuan: andik iru...

— ¡Zer bizimodu esaten du ! Sekula ez diot arpegi argirik ikusten.

“Sekula ez dit itzik egiten, eta maiz ostikoka eta golpeka zauritzen nau —esan zuen neska gaixoak, begiak igortziaz amantalaren ertzakin...

— ¡Puzuni gaiztoa ! —esan zuan Anjelek ukabillak estutuaz—. Ni egongo naiz berakin eta nik esango dizkiot merezi dituanak.

—Ez, ez, ez, Jaungoikoaren amorioagatikan, ez ezer esan Patxiri —esan zuan Mikaelak beldurrez ikara— zergatikan (1) ilko ninduke baleki nik ezer esan dedanikan...

—Ondo da, ondo da, —esan zuan Don Josek.

“Iduki zazu pazientzia egun batzuetan, Jaungoikoak emango dio osasuna Anjeli eta orduan nere illobak aterako zaitu otso gaizto orren atzamarretatikan.

— ¡Jaungoikoagatikan bada, ixildu gaitezen !... An nun datorren nere anaia...

Alaxe zan. Orduantxe zetorren Patxi etxe azpiko langatikan aurrera.

Danak ixildu ziran alkarri begiratuaz.

(1) ...ikara - ilko...

Patxi, ikusi zituanian Don Jose eta Anjel, piska bat astoratu zan, zergaitik (1) beldur zan zerbait esango ziotela merezi zuan bezela, baña laister bereganatu zan eta asi zan kopeta illuntzen.

—¿Nondikan nora abil, Patxi? —esan zion apaizak.

—Simonenian izan naiz lengo egun batean agindu nion uztarriya egin ote duan.

—Denbora asko bear izan duk emendikan Simonenera joan etorria egiten.

—Simon orrek ba berakin bazkaltzeko pakerikan ez dit eman eta ala gelditu naiz.

Apaizak eta Anjelek sinistu zioten, eta eren artean gogora zuten, Mikaela deskuidatu egingo zala esatean Patxi Bergaran zala.

—Eta... ¿zer asmo daukak, Patxi? —esan zion Don Josek—. Auzera danian artuak erein zituztek, eta ik oraindikan zoi bat bakarrikan ez duk itzuli. ¿Zer egi-teko asmoa duk?

—Ez erein... da nere asmoa...

—¡Ixilikan ago alakorikan esan gabe!
—esan zion Don Josek.

—Etxea eta lurra saldu, eta Oñatira

(1) ...astoratu zan, beldur zan... ...bezela-ta, baiña...

nua bizi izatera nere arrebarekin. Onen balioarekin jarriko dut denda koxkor bat, eta ogitarako lain aterako al degu; eta ez beti emen lertutzen aritu taloak eta babak jan eziñikan...

—¡Baztarra saldu! —esan zuan apai-zak zerura begiratuaz—. ¡Etxea saldu esan duk! ¡Ez duk posible, Patxi! ¡Ez diat ikusi artian sinistuko ain biotz gogorra eta ain buru makurra dekanikan...

“¡Ire aurrekoak jayo eta bizi izan ziran etxea! ¡Ire gurasoak jayo, bizi eta il ziraden etxea! ¡Eori jayo aizen etxea! ¡¡Patxi!! Edo txantxetan abil, edo erotu egin aiz...

—Ez bata eta ez bestea (1) —esan zuan Patxik, asiyaz asarratzen...

“¿Zer sartu daukate erok iñoren gauzatan? Ni naiz anaiarik nausiena, nere aita il zan testamenturikan egin gabe, eta nik egin nezake etxe onekin gogoak ematen didana.

—Etxea eta lurrak, ireak bezela dituk ire anai arrebanak...

—Nik eman ezkerro bakoitzari agin-

(1) Ez bata, ez bestea...

duak dauzkaten bostegun dukatak, ez du
iñortxok zer ikusirikan.

— ¡Zer negargarria ! ¡Zer gaiztakeria !
—esan zuten batera osaba illobak, Mikae-
la gaixoa, Patxin aurrean begiak jasotzen
atrebite eziñik, negarrez zegoan bitartean.

—Esan dut lenago ere, nik egingo dut
gogoak agintzen dirana —esan zuan Pa-
txik geroago eta asarreago—. Zaitu beza-
te euren etxea eta ez auzokoa, zergatik (1)
iñoren buruko miñak, astoak iltzen ditu.

Patxi jiratu zan beste aldera bizkarra
jasoaz, eta sartu zan etxean kantatuaz :

*Nik badut liburutxo bat
duana esaten,
iñor ez dedilla asi
auzo gobernatzen.*

— ¡Mikaela ! —esan zion apaizak—
atoz gurekin. Iges egin ezazu anima galdu
orrengandikan, eta ez zaiozu geyago ar-
pegira begiratu.

— ¡Ay Don Jose ! Ori egingo banuke,
ez nuke ordubeteko bizirikan —esan zuan
Mikaela gaixoak, beldurraz ikara apaizan-
gana arrimatuaz.

(1) ...auzokoa, iñoren... ...ditu-ta.

— ¡Mikaela! ¡Mikaela! —ots egin zuan Patxik sukaldetikan—. ¡Or ez zaizu ezer ere galdu! ¡Or ez daukazu zer egiñikan!

—Ez zaiozu kasorikan egin, eta atoz, atoz gurekin (1), —esan zioten Don Josek eta Anjelek neska gaixoari esku muturretikan elduaz. (a)

— ¡Ez, ez, Ama Santisimarengatikan! Ikusiko balu ni erokin nuala, egun pauso eman baño lenago, ilko giñuzke irurak. ¡Agur! ¡Agur! ¡Obeitu egin bear diot! Bestela, ni errukiena —esan zuan Mikaelak Don Joseri eta Anjeli esku banatatikan elduaz eta belaunak ikaraz zituala. Eta sartu zan barrura negarrez eta atzera begiratuaz.

Osaba illobak asi ziraden bide txiorra bera, itzik egiteko almenikan gabe eta noiz baño noiz negarrak ertengo.

Galtzadako zubitxora eldu ziradenean, eseri ziran atsegitera...

Tan, tan, tan, ari zan joten Abe Mari-takoa San Blasko kanpaia. Apaiza eta An-

(1) ...egin, eta atoz gurekin...

(a) neska gaixoari esku muturretikan elduaz.
(Au dana falta da).

jel jarri ziran buru utsean eta errezatu zituzten iru Abe Maria...

—Sinistu beza, osaba, —esan zuan Anjelek errezatu zutenean—. Sinistu beza; Patxik salduko du etxea, eta ez da konbeni beste eskuetara aldatu dedin Etxealari. Orixe erosten enpliatuko ditut lapurrak utzi zizkidaten diru apurrak, eta, Inazio datorrenean, Jaungoikoak nai badu etorri dedin,... etorri dedilla aberats, edo etorri dedilla arditikan gabe,... (1) (a) esango diot: ¡Inazio! Or daukazu zure gurasoen etxea, zure anai madarikatuak saldu zuana; eta Jaungoikoak nai izaten badu, Mikaela eta ni ezkondu gaitez, Etxe-alaietan biziko gera Inazion etorrera arte, eta gure alegiñak eta gure izardiak jantziko ditu orain gorri dauden lur ederrak...

—¡Ori, Anjel, ori! —esan zion osabak lepotikan elduaz—; lurraren gañean ez duk ire biotza baño ederragorikan...

—¿Simon uztargiña ez da, an datorren ura? —esan zuan Anjelek.

(1) etorri dedilla aberats edo etorri dedilla arditikan gabe (**Au dana falta da**).

(a) ...Jaungoikoak nai badu etorri dedilla arditikan gabe... (**etorri dedin... etorri dedilla aberats edo kendu ta dana alkartuta**).

—Bai... bera duk —esan zion osabak— eta ez dik etxetikan datorren antzikan. ¡Gezurren bat esan dik Patxik!

Simon jaietako arropakin eta asto bat aurrean zuala eldu zan zubira.

—Arratsalde on, edo gabon onezkero, Don Jose konpañiarekin (1) —esan zuan Simonek, astoari isssooo esanaz.

—¡Kaixo, Simon! ¿Nondikan zatoz?

—Or... Tolosa aldian izan naiz uztarri batzuekin.

—¿Eta ezerki egin da?

—Ez dut ba gauza aundirikan egin, jauna. Bi egunian an egon aiz, eta erekin atzera (2) ez etortzeagatikan, utsian eman ditudala kontu, ardit baten irabazirikan gabe.

“¿Eta zer egingo nuan? Gaurko egunean etxetikan kanpora dabillenak, poltsa beti eskuan bear du, eta ala ere, or be alde orretan, zai zai daude noiz bat artuko, larrutzeko; nik beñepeñ oingo biajian ix-ixilik (a) ederrak artu ditut; esaten diot, gaurko egunian ezin ankarikan atera lezake etxetikan...

(1) ...don Jose lagunakin...

(2) ...erekin etxera ez...

(a) ...isill isillik...

“¿Eta eurok, pasiuan izan dira? ¡Ondo alaxe, ondo! Konbeni zaizka orlako ibili batzuek Don Anjeli...

—Bai ba... Ustez uste gabe, Etxe-alairano eldu gera.

—¡Hola! ¡Hola! Poliki izan da...

“Eta... ¿zer dio jende arek? ¿Inazion berririkan izan dute?

“Egun urte badira ikusi ez ditudala, ez Patxiko eta ez Mikaela... (1)

—Zori gaiztoan, ez dute ba Inazion berririkan.

—Bai, Inazio etxian balego, beste ollareak egingo luke kukurruku Etxe-alaian... Mundu onetan ez da izango amarik, Patxi ori baño aur okerragorik jaio duanik, eta bestela galdetu deiotela beran arreba zintzoari eta beran bazterrari.

“¡Ay! Juanek eta Fraiskak (zeruan egon ditezela), Juanek eta Fraiskak (2) jasoko balute burua eta orko joan etorria ikusi, beriala lirake berriz illik.

—¿Badakizu Patxi etxea saltzera duana?

—¡Aitaren eta Semearen! ¿Zer esa-

(1) ...ez Patxiko ez Mikaela...

(2) Bigarrenko Juanek eta Fraiskak falta da.

ten du, Don Jose? —esan zuan Simonek siñatuaz.

—Aditzen dezuna...

—¡Ba! ¡Ezin sinistu lezake orrelako erokeririkan! ¡Etxea saldu, Jaungoikoan izenean!... Ez nuke salduko nik nere, mundu onetako urre guztiagatikan ere... ¿Zer da gauza oberik, esan al izatea baño egunero: sagar au nere aitak sartua da; intxaur ori, nere aitonak; or egoten zan nere amona goruetan; an nere ama, gure praka zarrak konpontzen; eta beste alako milla eta milla gauza, nik ezin esan nitezkeanak?

“¡A! ¡Patxi pardel! Baldin Inaziok baleki zer igarotzen dan bere etxean, laister litzake etorri eta galerazi Patxiri astakeri ori egitea. Erakutsiko lioke ark, no-rekin eta nola dabillen, Patxi alfer orri. (1) (a).

—Baaa... Inazio gizajoak ikusi ez dezan bere gurasoen etxea iñoren mende, nai du nere illobak erosi...

—¡Ongi asmatua! Oraintxe erori naiz astotikan, Don Jose, —esan zuan Simonek, irribarre egin eta begiak kiñatuaz—. ¿O-

(1) (a) ...Patxi alfer ori.

rrela egia da Mikaela eta Don Anjel ezkontzen dirala? Urte askotarako eta osasunarekin izan dedilla, ni uztargiña naitzen bezela.

“Urre puska balitz baña geyago balio du neskaxa orrek. Ama ber-bera atera da. ¡Eta zer bizimodua ematen dion gaxoari perdulario orrek! ¡Zer gauza beltzak ikusten diran mundu onetan!

—Baña nola Anjelek, lapurtua izan arren, aberatsan otsak dituan, Patxik, dadukagu bildurra, asko paga erazi naiko diola. (1)

—Arrazoa du, Don Jose. ¡Eta nork! ¡Patxik!... Diruagatikan salduko luke bere odola ere.

—Ba... orretako egin bear diguzu mesede bat, Simon.

—Nere animarekin eta nere biziarekin, jauna. Esan beza zer egin bear dedan...

—Zeorrentzat balitza bezela, Etxe-alai erosi.

—Ez beza geyago itzik atera. Bigar, Jaungoikoak nai badu, meza ondoan gainerakoa itz egingo degu.

—Eskerrak milla, Simon.

(1) ...Patxik asko paga erazi naiko diola, dadukagu bildurra.

—Zer esker eta zer... eskerrak izan oi dira apaiz-etxekoan...

“Barkatu beit, Don Jose..., Astekeria bat ia esan nuan eta... Ainbestekin gabon, eta bigar arte. ¿Nai dute etxeraño lagundutzea?

—Ez, Simon, eskerrik asko, eta esku-muñak emazteari.

—Asko poztuko da... Eman beiote nere izenean ere andra Josepari.

—Bai, eta gañera esango diogu, bigar zu zatozenerako, gertu iduki ditzala sartaingara bat urdai azpiko eta pitxar bat txakoliñ.

—¡Je, je, je! Ez dira gaizki etorriko, jauna.

—Bigar arte ba, Simon.

—Ongi bijoaz.

—Uztargiña joan zan bere bidean, eta osaba illobak asi ziraden etxe aldera arri-matzen, iguzkiak bezin argi egiten zuan idargia lagun zutela.

VIII

Oñatiko kale bazter bateko etxe illun batean zegoan denda txiki bat. Atean aurrez aurre zegoan mostradore edo mai beltz luze bat ez gauzaz betea.

Denda aretan sartutzen ziradenak gutxi ezer erosten zuten...

Aruntz zijoazenak joaten ziraden dirua artu edo dirua ematera, ba Patxin tratabiderik maitiarena (1) (a) zan, estu estu arkitzen ziraden nekazari gizajoari odola zurrut egitea, emanaz dirua ogei errial bakoitzeko lauren irabaziakin illean.

Mai aren ostean egon oi zan Patxi, edo diru kontatzen edo atzamarrak kontatuaz konturen bat zuzentzen. Noizik beñean deitzen zuan an ostean zegoan ate txiki

(1) ...maiteena... (a) ...maitiena...

batetikan, eta etortzen zan barrendik Mikaela, liburuan jartzera anaiak esaten ziona.

Baña... Mikaela onek ez zuan Etxe-alaiko neskaxa eder aren antzikan; zegoan guztiz arlote jantzia, oso argaldua eta aren lengo larrosa kolore ederrak biur-tu ziraden buztin kolorekoak.

Gaixo arentzat ez zegoan Jesus beteko (1) atsegiñik, beti lanean, sekula ez arpegi argirik ikusi eta ez itz (2) bigun bat aditu gabe bere anaiagandikan. Errukigarrri aren sariya izan oi zan gosea, itz gogor-rak, eta maiz belarrondokoak eta ostikarak. Mikaela gaixoak ez zuan beste pozik, ez bada, bakarrik arkitzen zanean, negar eta negar egitea, oroituaz bere biotzeko guraso eta Inazio maitearekin, eta baita ere Anjelekin. Ainbeste negarrekin begiak zeduzkan gaixotuak, baña ala ere gaixo aren ezpañetatikan ez zuan ertetzen ay ene batek bakarrik. Patxin begirakunak uzten zuan beldurrez ikara eta non zegoan ez zekiala. Beldur onekin baliatuaz egiten ziozkan madarikatu arek, zakur

(1) ...Jesus bateko...

(2) ...eta itz bigun bat...

amorratu bati opa bear ez zaizkonak, eta ikusirikan bere arreba arriari negar eragiteko estaduan, orduan eta gogorrigo izaten zan berarekin...

¡Bai! ¡Aretxek igarotzen zuan egiazko martirioa!

Illun arrats batean sartu zan Patxin dendan, arpegia eta eskuak beltzak zituan gizon bat, eta, ez gabon eta ez berri on, eseri zan zokoan zegoan aulki batean.

Ura ikustean, jaiki zan Patxi salto batean eta itxi zuan giltzaz dendako atea; urrena sartu zan barrenera, eta, ikusirik arreba bere lanean zebillela, itxi zuan osteko ate txikia ere, eta, eseri zanean bere lekuan, esan zuan...

—¿Zerk ekarri au onera, Mitxel?

—Deabruak eraman nazala, ez i ikusteko gogoak, Patxi, baizikan etorri nauk iri esatera, txoriya aspertu dala kaiolan egotez, eta esan zidak, ze, egiten ez badiugu bideak ura andikan laister ateratzeko, denbora pasa kantuan asiko dala, eta aren kantuan otsera bat edo bat joango zaiola lagun egitera.

“Ni an egon naizen artean, ainbestean ere egon duk, baña ni andik atera nintzan

ezkero, eskerrak kapaiñak egin zuten deklarazioari, esanaz ni San Migel arratsean Istingagorriko pagariyan egon nintzala kapaiñari burlaka kantuan, gizajo ura ge-roago eta asarreago zio, eta esaten dik, agindu ziozuten bezela andikan ateratzen ez badezute, dana zan bezela garbi esango duala.

Patxik, ukabillarekin maya joaz eta birau bat botaz, esan zuan:

—Eta ¿zergatikan bota bear zaizkit neri txalma guztiak, izanik danak okerra egin genduanak?

—Poliki itz egizu, konpañero, poliki. Nik egin diat nere eskota. Zuek eman zizkidazuten ogei ontzako zikiñagatikan, an egon nauk ogei astean itzalean, eta zuek, urre eta zidarrezko gauzan gañera, berregun bana ontzako gorde zenduztenok, ez dezute oraindikan ankarik sartu iguzki gutxiko aposentuan. Besteak ezkutatu ituan deabruak zekik nora, eta orain i bakarrik aiz beldur izan bear duna... badakik, un-tura oriekin kaiolako atea irikitzen ez badiok txoriyari iges egin dezan.

—Sinistu nazak, Mitxel! Txanponikan ez zidukat...

— ¡Beste zakur bati ezur ori, Patxi!
¡Patxi! ¡Kontuz ibilli ari! zergatik (1)
Anzuelan asi duk zurru murra bat on aundirikan egingo ez dirana.

—Eta ¿zer ajola zaidak neri Anzuelarran berriketangatika?

—¿Ez dakik, Patxi, Pepeten ipuia?

—Ez diat nai ere jakiterik.

—Baña... ¿nola izan lezakek ik ez jakitea, bularreko aurrak dakitenean zer igaro zitzaion Pepete dontsuari?

—Mitxel, utzi zaiek kopla oieri, ez zeukatek zer ikusirikan nerekin eta...

—¿Ez dutela zer ikusirik irekin? ¡Aitu zak! ¡aitu zak! eta aurki esango dirak daukaten edo ez.

“Pepete uen Leazpiar bat, eta ik egin dean bezela, saldu ziran bere etxea, eta bizi uen, jan, eran eta josta, errege bat baño egokiago... Baña, atera eta ez sartu agertu uen kutxatillaren soruba, eta joan zituan deabru etxera Pepeten jan eranak eta jolasak. Ondo nai eta ezin izan, giza-jo ura ari uan beti burua nekatzen, nola ote zeikean bizi ongi eta lanikan egin gabe.

(1) ...ibilli adi! Anzuela'n...

“Arrats batean joan uen Villarrealera, sartu uan osteko atetikan indiano baten etxean, eta egun sentirako jo zikan Legazpi, ezin jaso ala ontzako urrez zama-tua. Asi uan justizia lapurraren billa, ba-ña alegin guztiak alferrak izan ituan, zer-gatik (1) ez zuten ezeren lorratzik topatu. Bitartean bizi uen gure Pepe len da gero baño obekiago. Denbora joan, denbora etorri, iñor ez uan oroitzen Villarrialgo indiano lumatuarekin, non (2) egun baten asi ziraden zar eta gazte, atsoak eta muti-koak, kantari:

*Pepe, Pepete,
iñoren gauzaz
zuk etxea bete.*

“Eldu uen kanta Bergarako (3) juezan belarrietara, eta bota dizko Pepete don-tsuari bost mandamentuak gañean, eta, ortikan zirri eta emetikan galde, aitortu eragin zioten, zan bezela, Villarrealgo in-dianoari eman zion txalma, eta mesede onen sariya eman zioten dantzatu eragi-

(1) ...izan zituan; etzuten...

(2) ...lumatuarekin, baña egun baten...

(3) ...Bergarara...

ñaz nai ez zuan fandangua soka batetikan zintzilika.

“Ala ba, Patxi, begira zak ondo Pepeten ipuiak daukan edo ez zer ikusirik; begira zak ongi, Anzuelan dabillen zurru-murrua eldu litekean edo ez jueza-ren belarrietara.

“Ik esan duk ire artean: Anzuelan ezin nezake kanpiatu diru onekin... zergatik (1) bat edo batek galdetuko luke: ¿Non-dik ateratzen dirade meza oiek? Eta bes-ten batek erantzungo luke: Apaizan etxe-tikan. Orregatikan esan duk ik: Saldu zadan etxea eta jarri zadan denda, eta ja-rrri zadan ez ezagun artean, iñork nere el-tzean sartu ez dezan sudurrik, eta sinistu dezaten nere ondasunak salbentaren ira-baziak ekarri dituala. ¿Ez duk ori ala?

—¿Baña zer esan nai duk ainbeste itz alferrekin, Mitxel?

—Esan nai dirat, mutill abilla izan ai-zela eta aurrera ala izan nai baduk, eman bear dirakela dozenatxo bat ontzako; aie-kin igortziaz eskuak txori zaitzalleari, ate-ratzen ote degun eguzkitara an kalabozoan usteltzen dagoana.

(1) ...onekin; laister bat edo batek...

—Lenago ere esan dirat, Mitxel, ez dedala nik dirurikan. Eta... iduki eta ere ¿uste duk orain arte eman ditudanak ez diradela naikoa?

—Begira, Patxi, egin zak nai dekana. Ni banijoak ik zer esan dekan ari esatera... Ikusiko duk nola kantatzen duan. ¡Patxi! Ere larrua maitatzen baduk, atera itzak amabi ontzako esandakoak.

Patxik, agiñak estutuaz ezpañetatikan odola ateratzeraño, esan zuan birau izugarri bat, eta maiko kutxatillatikan atera zituan sei ontzako egiñak, eta bota zituan maian gaiñean...

—Adiskire —esan zion Mitxelek— sei falta dituk emen.

—Ez zidukat geyago.

—Amabi bear dituk.

Patxik bota zuan beste ontzako bat eta beste birau bat.

—¡Patxi! Ez ari denbora pasa ibilli... Betoz beste bostak...”.

Patxik bota zuan beste ontzako bat.

—Animatū ari, gutxi falta dituk.

—Ez detala geiago.

—Txoria kantuan asiko dala.

Patxik bota zuan beste bat.

—Onera beste irurak...

—Iru oñaztu eroriko al dituk i eta ni biok kiskaldu gaitezen.

—Patxi..., Txoria amorratzen dagoala kantuan asitzeko.

Patxik bota zuan amargarren ontzakoa eta beste juramentu bat.

—Aspertu nauk ia, Patxi, atera itzak falta diran biak.

—¡Ez diat geyago emango, bizirik nagoala larrua kentzen badirade ere!...

—Patxi..., txoriak kantatzen badu, lepo ori estutuko ditek...

Patxik bota zuan beste bat.

—Ia ba azkena...

—Ez da txiki txiki egiten banaute ere, ez diat besterik emango.

—¡Ay, kerten aundia! Ontzako baten gora-beragatikan, nai duk zintzilika dantzan ibiltzea! ¡Zer ikusgarri polita egongo aizen mingaña kana laurden bat kanpora deala!

Au aditu zuanean, Patxik bota zuan azkeneko ontzakoa esanaz:

—To, eta erosi zak berakin ni urkatze-ko soka.

—Zer egin oiek borreruanak dituk —esan zuan Mitxelek ontzakoak gerrikoan sartuaz—. Orain eregi zak atea noan Ber-

garara, artale auek sartzen ote diozkaten ari kaiola ertzen batetikan, eta bigar egun sentirako Lakiola basoan daukaten txendorrean egon nai nitek, zergatikan (1) onezkero eske egongo duk ura.

“Ain zeken ibilli ziñaten nerekin ontzako partitzean, eze berriro ere aizkorari eldu bear izan zioat biziko banaiz.

Patxik, giltza artutzen bazuen bezela, artu zuan mai gañean erdi ezkutatua zegoan arakin kutxillo bat, eta eman zuan pauso Mitxelengana.

— ¡Patxi! —esan zion onek, pistola bat ateriaz gerrikitikan—. ¡Patxi! Baldin giltza ez baduk billatzen atea irikitzeko, onek irikiko dik ire buruan atea edo leioa kutxillo orrek baño obeto.

Patxik lotsaturik esan zuan zerbait aopean, eta utzirik kutxilloa eregi zuan atea, nundik (2) esmendatu zan Mitxel.

Bakarrik gelditu zanean, Patxi joan zan kutxatillara, eta, ikusi zuanian Mitxelek eramandako ontzakoak utzi zuten utsuna, asi zan birauka buruko illeak ateriaz eta negarrez eskola ume bat bezela.

Au igaro zanetikan bost edo sei egune-

(1) ...egon nai nitek, onezkero... duk ura-ta

(2) ...atea eta esmendatu...

ra, goiz batean zegoan Patxi bere denda baztarrean, agertu zanean gizon bat karta eskuan zuala. Karta au zan Patxirentzat, eta Anzuela borraturik zedukan aren orde Oñati. Nola ez zekian irakorten Patxik deitu zion Mikaelari, eta onek ezagutu zuanian Inazona zala, asi zan irakortzen pozez negarra zeriola. Inaziok esaten zuan karta aretan, jakiñian zegoala nola gurasoak il ziraden eta laister ikusiko zutela San Blasco eleizan aiengatikan Jaungoikoari erregutzen. Esaten zien ere aberastu zala, baña osabaren ondasunak bereganatuta ez bada (a) berak irabazi zituanekin euskaldun batek lagunduaz.

“Gure Jaungoikoak —esaten zuan—, kupiturik nere ez bearrakin, eman dit denbora gutxian beste askori eren bizi guztian ematen dien baño ondasun geiago, bada neronek irabazi ditudanaz gañera, len esan dedan euskaldun laguna il zan, eta, nola ez zuan seniderikan, nik berarion legeagaitik utzi ninduan bere ondasun guztiaren jabe.

“Badakizute ba; ni nago izugarri aberatsa, eta nere ondasunak izango dirade,

(a) ...beregantuta ez, baizik berak...

nereak bezela nere anai arrebarenak; baldin, uste dedan bezela, merezia badute (a).

¡Ezin esan lezake zenbateraño zan Patxikon naigabea karta au irakorri zanean!

Bere anaiak zekartzen ondasunak izan balira osabak utzi zituanak, berarentzat izan bear zuan, nai ta nai ez, irugarren zatia, baña ala ez izanikan ez zedukan eskubiderik ezertan, eta beldur zan, jakiniñik Inaziok beran ibillera eta egintza gaiztoak, ez ondasunikan eman, baizik kontu estuak artuko ziozkala.

Au oroitzen damutu zitzaion (1) egin zituan gaiztakeriak; ez biotza bigundu zitzaiolako, baizikan anaiaren beldurrez, eta aurrera asi zan arreba eztitzen alegin guztian.

Egun artatikan, orduan arte baño beste bizi modurik izan zuan Mikaela gaixoak... Ekarri zion neskame bat etxeko lanak egiteko, jantzi zuan burutikan oñetara, zer nai eta arekin eztitu zuan itz legunakin, eta, itz batean, kostea kosta, egin zituan alegiñak Mikaela pozik iduki-

(a) ...izango dirade, nereak bezela merezia badute, nere anai arrebarenak. (**Baldin**... au dana falta da).

(1) ...zitzaizkion...

tzeko eta aztu eragiteko aurretik emanda-
ko naigabeak eta egun gorriak...

Arrebak, ez jakiñik Patxin intentzio
makurrak, sinistu zuan, Jaungoikoak,
errukiturik berakin, ikutu ziola biotzean
borrero ari, eta, berak uste ez zuala, asi
zan Patxi maitatzen, azturik artu eragin
zion gorrotua.

IX

Igande goiz batean Bergarako plazan eta amarrak inguruan, galai gazte batek esaten zion, arrautza, gazta, eta egazti aurrean zituala, zegoan estalki zuri dun amonaxo bati...

—¿Asko egiten dute arrautzak?

Amonak, keskaz begiratuaz, esan zion:

—Edo nik lañoak ditut begietan edo beroi da... Baña... bai zera... Ura ez zan ain...

—¡Orrela! ¿Ez nau ezagututzen Mariyak?

—¡Nere Ama Santisima! —esan zuan amonak, eta, jaregiñik mantalean zeduzkan arrautzari, lepotikan eldu zion beso biakin, eta, laztan bat emanaz, esan zion—
¡Inazio!

Eta amona eta Inazio gelditu ziran alkar estutuaz.

—Mari —esan zion aldamenean zegoan atso batek—. ¿Senide al dezu galai ori?

—Ez det senide, baña seme bati aña nai diot nik oni —erantzun zuan Marik, txitxi baño arruago—. Neronen (1) belau-netan azia da au esate baterako. ¡Zer ederra zauden, Inazio! ¡Zenbat azi zeran!

“ ¡Ay! ¡Zure ama bizi balitz!

“ ¡Zenbat nai zizun Fraiska gaixoak!

“Askotan esan oi nion nik: Seme orrek txoratu egingo zaitu zu. Eta Don Josek esaten ziran: Utziozu, Inazio du orrek (2) bere kutuna eta...

“ ¡Zer negargarria, Inazio, zer negargarria! Ain famili ederra utzi joan ziñanean eta orain...

“ ¡Batzuek illik! eta besteak...

“ ¡Jaungoikoak daki non!

—¿Zer esaten dezu, Mari? ¿Nere anai arrebak... ez daude Etxe-alaian?

—¡Zer! ¿Ez dakizu Patxi deabruak Simon uztargiñari etxea saldu eta Oñatira joan zala bere arrebarekin?

— ¡Ay nere Jaungoiko maitea! —esan

(1) ...Nere.

(2) ...arek...

zuan Inaziok buruari elduaz—. ¡Nere anaiak saldu egin duala etxea, diozu?

—Aditzen dezun bezela. ¡Ark ez badu biotzikan! ¡Ark ez badio legerikan iñori! ¡Berak il zituan naigabez zure gurasoak!

Inaziori bete zitzaizkon urez begiak eta aldatu zuan itz bidea.

—¿Eta apaiza eta bere etxekoa nola daude?

—Ala, ala, ba, Inazio; D. Jose oso lurra jota dago, eta Anjel oraindik ez da saniatu. Orrengatikan ez da ezkondu zure arrebarekin, zergaitik (1) berak esaten duan bezela: ¿zertarako ezkonduko naiz ni neskatxa gaixo orrekin bigar edo etzi alargun utzitzeko edaderik onenean?... Zein dagoan anbestean ere, andra Josefa da; eta ori ark ere bereak ikusi dituala ainbeste joan etorrikin. Lege aundia dio etxeari eta, esan oi dan bezela, da emakume on bat.

“Berak ezer izan ezkerro, ez da ez auzoan negarrik izango. ¡Eta bazenkizu zenbat nai dizun!

“Beti dabil, Inazio gora eta Inazio be-
ra...

(1) ...arrebarekin oraindik. Berak esaten...

“Eta... ¿nola ibilli zera baztar oietan?

—Ni, Mariya, Amerikan ongi ibilli eta ongi joan zait, baña itxasoan gaizki... Ni nere ondasun guztiakin netorren ontzia, galdu egin zan bidean, eta berakin galdu zan nere izatea... Etorri naiz joan nintzan bezelaxe...

— ¡Ay zer damugarria! Baña... ¡zer egingo da! Bizirik zaude eta ori da bearrrena. Ez zaite estutu orrengatikan; osasunak lagundu ezkeru, ez da faltako ogi puska bat...

“Ez dago esan bearrik... Gaur alkarrekin joango gera Anzuelara; astoa nerekin det eta aretxek eramango ditu, tresnari-kan badezu. ¿Ez da ala?

—Milla esker, Mariya, baña lenbizi Oñatira joan nai nuke, aiek an dauden ezkeru.

—Ondo egiten dezu, Inazio, ondo egiten dezu! zergatikan (1) nor beran odolekuari legerik ez dionari, Jaungoikoak ere ezin lagundu leioke.

“Egia da, Patxi dala arpegira begiratutzea merezi ez duana, baña, okerrenera jo eta ere, anaia dezu, eta, len esan dedan

(1) — ¡Ondo egiten dezu, Inazio! Norberan odolekoari...

bezela, odolak betik ezartzen du. ¡Alferrikan da!

“¡Beti oi da etxe bakoitzean txerren bat!... Mikaela bai poztuko dala zu ikusiarekin. Ez du gaixoak Patxin antz aundirikan... Ama ber bera dator ura gutian...

Beste ordu bian ez zan geldituko Mariyan iturria, bezero bat etorri ez balitza arrautz tratura...

—Orain ba... ¿zer nai dezu Anzuelarako?...

—Eskumuñak etxian, Mari, eta denboraz alkar ikusiko degu...

Egun ura igaro zuan Inaziok bere zer egin batzuetan, eta biaramon goizean joan zan Oñatira.

Mikaela eta Patxi biak zeuden dendan, Inazio atean agertu zanean.

Iruren eztarrietatikan atera zan pozezko deadar bat, eta alkarri elduaz gelditu ziraden bat egiñik.

Ezin aditzera eman litezke Patxik egin ziozkan pozkeriak, Inaziori sinistu eragin naian bere naitasuna, eta gutxiago aitortu lezake, bear dan bezela, zeñ gozoa eta aundia zan Mikaelaren eta Inazioren biotzak betetzen zituan poza...

Piska bat sosegatu ziradenean, Inaziok aditzera eman zien anai arrebari bere ibilleran eta bere bizi moduan joan etorriak, eta esan zien Mariyari Bergaran esan ziona, au da, bere ondasun guztiak itxasoak irintsirik, arditikan gabe zetorrela...

Inazio izketan ari zan artean, Patxik eta Mikaelak zeukaten beso banarekin lepotikan ezarrita, baña ez al zuan Patxik aditu joan bezin aberatsa zetorrela, alderandu zan anaiarengandikan, izurriaz edo atzez beterik etorri balitz bezela Inazio... Ez zuan egin alakorikan Mikaelak, ez bada eldu zion len baño gogotiago eta estutu zuan bere anai maitea biotzaren kontra... Baña Patxik egin zion begirakuna bat... aspaldi artan beldurrez eta izardi otzez bete oi zuten begirakuna aietako bat, eta Mikaela gaixoak, zer egiten zuan ez zekiala, biotza miñez zatiturik, alde egin bear izan zuan bere animako Inaziogandikan.

—Inazio —esan zion Patxik—. Nik naikoa egin diat orain arte, i joan intzan ezkerro, gure guraso eta arrebagatikan, eta ez diat uste geiago egiteko zorian arkitzen naizenik.

“I pobrea ba aiz, ni ere ala nauk.

“Jan nai baduk, lana egin zak, zergatikan (1) nik naikoa diat gure arrebarentzat eta neuretzat ogia irabaztea...

—Ori duk esatea, Patxi, ire etxeko atea eta ire biotza itxiak daudela anaiarentzat —esan zuan Inaziok, dolorez itzik asmatu eziñik—. ¡Patxi! Zuk zere etxetikan botatzen banazu zakur bat banitza bezela, nik billatuko dut beste etxe bat, nik nereganatuko dut nere anai madarikatuak saldu zuana, eta bertan biziko naiz nere oñazakin eta nere miserian edo nere ondasun artean...

Eta au esanaz erten zan dendatikan, eta eskuak gurutzatuaz esan zuan...

—¡Nere arrebak ere saldu nau azkenik! ¡Ay nere Jaungoikoa! ¡Au geiegi da nere indarrarentzako! ¡Egin bedi zure borondatea!

Oñatitikan Korosora dagoan bidea gora zijoan Inazio gizajoa, burua makurturik eta noizik beñean negar tantoa zeriola, oroituaz bere bakardadearekin. Eldu zanean Koroso gañera, utzirik bidea, igo zuan aren eskuiko aldetikan zegoan ton-

(1) ...egin zak, nik naiko diat... irabaztea-ta.

tor batera, nondikan (1) agiri zan San Blas auzera eta non ikusten zan Etxe-alai, uso zuri bat erramu tartean balego gisa.

— ¡O nere jaiotetxe ederra! —esan zuan Inaziok esku zapiarekin kopeta lehortuaz—; ¡Ez dago zure sukalde baztarran ama bat negarrez, bere seme maitea urruti dalako! ¡Ni garaitzen naizenean zure atari aurreko intxaurretara, ez du iñork egingo pozezko garrasirikan leio oyetatik!...

“Ez ama, ez aita, ez arreba eta ez anairikan ez da besoak zabalduaz antxintxika etorriko errukigarri oni laztan ematera! ¡Ay nere Jaungoikoa! ¿Zergatik ito ez ninduzun itxasoan nere lagunak ito zenduzen bezela? ¿Zergatik ez dezu sortu nere biotza ainbeste zauritu baño len?

Oñazari eutsi eziñikan, jira zituan begiak beste aldera eta... txilio aundi bat egiñaz asi zan tontorra bera, bidea gora illeak narras eta arnasaz eziñ beterik, zertoren neskatxa gazte bat besoetan estutzera...

Neskatxa au zan Mikaela, bere animako arreba kutuna...

(1) ...tontor batera; andikan agiri zan San Blas auzera eta ikusten zan...

— ¡Inazio ! ¡Inazio ! ¡Nere Inazio maitea ! —esan zuan Mikaelak bere anaia-
ren lepotikan zintzilika geldituaz eta aren
paparrean arpegia ezkutatuaz—. ¡Zure-
kin nai det bizi, Inazio nerea ! ¡Zuri la-
gundu nai dizut zure miserian, anai bio-
tzekoa !...

“Patxin beldurraz ez dizut jarraitu le-
nago, baña errukiturikan zure bakarde⁽¹⁾
(1) eta samiñarekin, indartu naiz aregan-
dikan iges egiteko. ¡Ay Inazio ! ¡Zer arra-
zoia zuan gure aita zori onekoak esaten¹
zuanean Patxik biotz gogorra zuala !

“Patxi aberatsa da, eta bota zaitu be-
re etxetikan pobrea zeradelako !

— ¡Ez, nere arreba maitea ! Ez naiz
pobrea, zuk maitatzen banazu —esan zuan
Inaziok, pozez eroturik, eroturik amo-
rioz— (2).

“Zure naitasuna bakarrik falta zitzai-
dan, arreba biotzekoa, zergatik (3) abe-
ratsa naiz, izugarrizko ondasunak ditut,
orain artean izkutatu nai izan ditudanak,

(1) bakardade.

(2) ...esan zuan Inaziok pozez eroturik—, zure
naitasuna... (eroturik amorioz falta da).

(3) ...biotzekoa; aberatsa naiz...

jakiteagatikan leiala ote zan nere anai arrebaren naitasuna.

“ ¡An! —esan zuan Inaziok, beatzarekin Etxe-alai erakutsiaz bere arrebari— Antxe biziko gerade biok, Mikaela maitea, eta nik nere maitetasun bigunarekin sendatuko ditut zure biotz gaixoak daduzkan zauritu gogorrak...

Eta eskuak emanda alkarri, iskutatu ziraden Elosegietan barrena eta Urkillun ziar, zeruko aingeruak zalez beterik uzteko zoriyan.

X

Mikaela eta Inazio Etxe-alaira ziradenetikan illabetera, goiz batean, Anzuelako kale goena gora zijoan amonatxo bat bere estameñazko soñeko beltz ederrarekin, eta elurra baño zuriago zan estalkian azpitik kopetatxo urdiña zintzilik zuala.

Pertzan ipurdia baño beltzago zan atso batek, ate zirriztu batetikan atera zuan burua, bata bestearen gañean bi edo iru estalki zarrekin jantzi.

— ¡Manu! —deitu zion amonatxoari...— ia, oneraño.

—Presaka nua, Pepa, eta ez det astirikan orain —erantzun zion Manuk aurrera joanaz.

—Emakumea, ez zaitugu jango —esan zuan Pepak eta atetikan erten da joan zitzaien, arri muturretikan arri muturrera

pauso egiñaz, katuak lokatza tartean egin oi duten gisa...

—Gaur, ez dago zer esanikan. ¿An izango zera? —esan zuan atso beltzak, Manun aurrean jarri eta esku batekin es-talki zarrak aurreratatu bekokian eta beste eskuko biatzarekin sudur zuluak errejista-tuaz...

—Bai... ¿eta zer? —esan zion Manuk.

—Zer... Badakizu zuk eta beste askok ere gure miseri...

—Bai, bai, badakit zertara zuazen... Inposible ez bada, zu batiatu ziñuzten pondak izango zuan jarion bat... zuri... ez Lanzurdea, baizikan Pepa-negar jarri bear zizuten izena.

—Bai... iñoren begiko negarrak, ez dit neri ere miñikan ematen, Manu.

—Nik sinistu ori, Pepa, baña esan za-zu laister esan bear dezuna.

—Ba... esaten ari nintzan bezela, neu ez naiz ezertarako gauza, ala ere egualdi otz abekin...

—Egualdi otzak baño gaitz geiago egi-ten dizu barrua geiegi epelduak, Pepa....

—Bai... gure intxaurrek erak diraden baño soñu aundigoak izaten dituzte, Ma-nu..., gure agure kaskalari ere, besoak

sortu (1) zaizko dornuari eta kardari eragiteko, baña agiñak geroago eta azkarra-
go ditu. ¡Aren ogi txikitzea!

“¡Aren irintsi bear tristea!... berarentzat lain...

—¡Ixilik egon zaite! ¡Asko ezagun dute zure senar gizajoan masalla ertzak ase eta betean (a) dabilela, zuk esan naya dezun bezela!... baña zabiltz azkar presa dut eta...

—Gaur, ba... iñoiz izatekoan (2) izango dira an eskupekoak; eta zuk, D. Jose edo andra Josepari esango baziño itz erditxo bat, zergatik, badakizu, gu bezelakoak... eta gañera zerri ezur batzuek edo beste edozer gauza etxeak dakarrena ez litzake...

—Eta ¿zergatikan joaten ez zera zerri?

—¡Ay Manu! Neretzat arpegi illunak egoten dirade an...

—Merezia izango dezulako...

—Zereko merezi. Iñoren etxeko gauzak jakiteagatikan, noizik beñean eramaten dute bera betekada bat ematera, eta

(1) ...gortu...

(a) ...ase betean...

(2) ...izatekotan...

deabru ark gezur eta abar... beti ni txar egin.

—Bai, txoroak dituzu (1) bai apaiza eta bai bere etxeokak, ez igartzeko zein zeraden zu eta nor dan zure agura giza-joa... Bai, naikoa esan dezu, eta banoa —esanaz, iges egin zion Manuk...

—Gero, ez aztu nik esandakoa —deitu zion Lanzurdeak...

—Bai, egon zai —erantzun zion Manuk—. Denboraz izango naiz emen, eskupekoa kolkoan eta upela txiki bat pata-
rrez betea buruan detala...

Pausoa arin arin emanaz, bazijoan gure Manutxo, non (2) tellari buruan trink egin zuan Mariyarekin, zein zetorren galtzada ziar, bere pranelazko mataliña tolostuaz esku biakin artuaz ertz banatati-
kan, eta okotzarekin erditik eutsiaz, eta, nola Jaungoikoari eskerrak ez zan mutua, dakigun bezela, esan zion Manuri:

(1) Bai, txoroak dira...

(2) ...bazijoan gure Manutxo. Esku biakin ertz banatati-
kan eta okotzarekin erditik eutsiaz, bere pranelazko mataliña tolostuaz galtzada zear zetorren Maria'rekin trink egin zuan tellari-buruan; Jaungoikoari eskerrak, etzan mutua, dakigun bezela, ta esan zion Manu'ri:

—¿Linboan edo non egon zerade orain artean, Manu? ¿Ez al dezu?...

—Ixilikan zaude, Mari,... Ernegatua nago nere artean ere... Lanzurde sorgiñak iduki nau, nai ta nai ez, ordubetean bere betiko negarrak esaten.

—¡Ay Manu! ¡Oraintxe betiko alkar-tu ditu Don Josek! ¡Ay ura ikusgarria!... Mikaelak Ama Birjiña bat zirudian eta Anjelek aingeru San Gabriel. (1) ¡Ikusi baziñu! (a)

—Eta ¿nortzuek izan dituzte lagun?

—Nortzuek izango zituzten, Manu,... Andra Josepa eta Inazio edo Don Inazio; zergatik (2) uste dut Don esan litzakiola emen inguruetako aberatsenari, berak nai ez baldin badu ere... ¡Gaizto aundia! ¡Zer patata sinistu eragin zidan Bergara-ko plazan!

—Mariya, Jaungoikoak bedeinkatu ditzala; zergatik (3) merezi dute.

—Ala izan dedilla, Manu... Apaiz jauna ere... (4) illabete onetan gaztetu da oso.

(1) ...eta Anjelek San Gabriel.

(a) ...San Gabriel. ¡Ikusi baziñu!

(2) ...don Inazio; uste dut don esan...

(3) ...ditzala, merezi dute-ta.

(4) Apaiz jauna illabete...

Artu ditu berriz ere lengo kolore eder ayek...

—Mariya, zu etxekoa nola (1) zeraden an ¿jakingo dezu zerbait?

—¡Jakín ez bada! ¡Bai orixe! Ba... Inazio etorri zanean lenbizi egin zuan gauza izan zan, Don Josen etxera joan eta esatea:

“¡Don Jose! Ni, diruz josiya nago, baña falta zaizkit aita, ama eta anaia; Anjel ezkondu dedilla Mikaelarekin, eta beori, Don Jose, izango da nere aita; beori, Andra Josepa, nere ama, eta zu, Anjel, izango zerade nere anaia.

“Umian ondasunak dirade gurasoenak, eta orregatikan jakiñian egon bitez, nere ondasunak danorenak diradela. Udaberria eta uda igaroko ditugu Etxe-alaián, eta negua emen.

“Ez al zuan au esan Inaziok, danak alkarri elduaz asi ziraden... baña... ixo... an non datozen... goazen ikustera, Manu—esanaz, joan ziraden biak eskolako umeak bezela, berriketan egiñaz eta korrika eleiza aldera.

Gizon bi, San Inazio martxa joaz, ba-

(1) ...zu etxekoa zera an, eta ¿jakingo...

ta txirolakin eta bestea atabalarekin; aien ondoren, pago gazteak baño bortitzago ziraden mutil tropel baten artean, Anjel; eta aben atzetikan, Mikaela, larrosaz eta krabelinaz egindako txorta bat baño ederragoago zan neskatxa mordo baten erdian, eta guztien jarrai, Don Jose, Simonen eta Inazioren erdian, zijoazen eleizatik kan apaizaren etxera.

— ¡Ay Manu —esan zuan Mariyak—.
¡Zer damugarria gaur, ez eman bearra gure Jaungoikoak ordu beteko bizia Juane eta Fraiska zorionekoeri, au ikusi dezaten!

— ¡Bai! ¡Arrazoia daukazu, Mari! Baña zerutikan egongo dirade begira eta... Gaña ¿zergatikan ote doaz ainbeste lagun korrika bide aldera? ¿Zer ikusgarri ote dago an? (1) (a) Goazen geu ere zer ote dan...

Eta, esan da egin, amonatxo biak joan ziraden antxintxika...

An zegoan ikuskizuna zan, mutil sa-soiko bat burnizko zepo batean eskuak sarturik eta soka batekin ukolondoak go-

(1) (a) ...ote dago an?

gor loturik, lau txendarmen artean zera-
matena Deskarga aldera.

— ¡Nere Ama Piedadekoa! ¿Zer ikus-
ten dut nik? —esan zuan Mariyak esnea
baño zuriago eginda.

— ¡ ¡Patxi da loturik damaten ori!!
¡ ¡Ay gure Jaungoikoa!! ¡Bera da, be-
ra da! —erantzun zion Manuk begiak es-
taliaz.

— ¡Ay Manu! (1) ¡Zenbat arrazoi
zuan Fraiska gaixoak, esaten zuanian Pa-
txik kartzelaren baten usteldu bear zua-
la!!!

Patxik ikusi zuan Simon uztargiña
Don Josen etxeko leio batean eta gelditu
nai izan zuan arekin itz bat edo bi egite-
ko, baña txendarme batek “aurrera” esa-
naz, jo zuan bizkarrean fusiliaren ipur-
diaz eta ezkutatu ziraden bidea gora.

¡ ¡ ¡Txoriak kantatu egin zuan!!!

(1) ¡Ai Maril...

ORAINDAÑOKO LIBURUAK:

R. Artola

SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso
asko.

M. Soroa

GABON, ¡AU OSTATUBA!, ANTON KAIKU

P. Apalategui, S. J.

EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.

Pepe Artola

USTEZ LAGUNA DETAN ta beste bertso
asko.

P. M. Urruzunq

EUSKALERRITIK ZERURA ta beste ipui
batzuk.

Toribio Alzaga Anabitarte

RAMUNTXO, *iru egintza* ta sei laukidun
antzerkia.

Ramos Azkarate

GALTZAUNDI ta beste bertso asko.

Antero Apaolaza

PATXIKO TXERREN. (Nobela).



1027892

JB-882

IMPRESO EN ESPAÑA

J